IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, ONDARE ERANTZUKIZUNAREN ETA ONDASUNETAKO KALTEEN ASEGURUARENA, PASAIAKO UDALAREN ETA HAREN BI ERAKUNDE AUTONOMOENA

(Pasaia Musikal eta udal euskaltegia - tutoretzapeko etxebizitzak barne-)

ONDARE ERANTZUKIZUNEKO ASEGURUA

BALDINTZA OROKORRAK

1. klausula - DEFINIZIOAK

Kontratu honetan honela ulertzen dira hauek:
- - ASEGURATZAILEA: Poliza honen entitate igorlea ("konpainia"), zeinak, aseguratzaile moduan eta prima kobratuz, bere gain hartzen duen kontratu honen xede diren arriskuak estaltzea, bertan ezarritako baldintzei jarraituz.
- ASEGURU-HARTZAILEA: Kontratu hau konpainiarekin sinatzen duen pertsona, zeinari dagozkion bertatik eratorritako betebeharrak eta zereginak, asegurudunari dagozkionak salbu.
- - ASEGURUDUNA: Kontratutik eratorritako eskubideak dagozkion pertsona.
- - POLIZA: Aseguru kontratua formalizatzen den dokumentua, klausula administratibo partikularren agiriak, preskripzio teknikoen agiri honek, alderdiek indarraldian sinatutako aldaketek eta gehigarriek eta aseguruaren abaroan igorritako gainerako dokumentuek osatua.
- PRIMA: Aseguruaren prezioa, zeinaren ordainagirian, gainera, sartuko diren aseguru-hartzaileari legez jasanaraz dakizkiokeen zergak eta errekarguak.
- ZENBATEKO ASEGURATUA: Agirietan adierazitako zenbatekoa edo zenbatekoak, edo, hala badagokio, konpainiak egindako eskaintza, aseguratzaileak ezbehar bakoitzagatik bere gain hartutako gehieneko muga irudikatzen duena, edozein direla ere ukitutako estalduren kopurua.
- KALTEAK:
  Gorputzekoak: Pertsona fisikoek jasandako lesioak, gaixotasunak edo heriotza.
  Materialak: Gauza baten kaltea, narriadura edo suntsipena, baita animaliei egindako kalteak ere.
  Galerak: Galeraren erreklamaziogileak jasandako gorputzeko kalteen edo kalte materialen zuzeneko ondorioak diren galera ekonomikoak.
- EZBEHARRA: Ondorio ekonomikoak polizak estaltzen dizkion egitatea. Gertakari beretik eratorritako kalte guztiak ezbehar bakarra dira.

2. klausula - ASEGURUAREN XEDEA.

Polizan jasotako moduan, bertako mugekin eta baldintzekin, aseguratzaileak bere gain hartzen du asegurudunak administratiboki eta zuzenbidearen arabera bere erantzukizunpean izan ditzakeen kalte ordainen ordainketa, gorputzeko kalteengatik zein kalte materialengatikoa eta hirugarrenei eragindako halakoen ondorio zuzenak diren galerengatik.

3. klausula - ASEGURUA EGITEAN ETA HAREN INDARRALDIAN

1. Poliza hau aseguru-hartzaileak aseguratzaileak egindako galdetegian adierazitakoan oinarrituta egin da, eta horrexegatik, aseguratzaileak arriskua onartu du, bere gain hartu ditu kontratutik eratorritako obligazioak eta prima finkatu du.
2. Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak, kontratuak iraun bitartean, aseguratzaileari jakinarazi beharko dizkio arriskua larritzen duten inguruabar guztiak, ahal bezain laster, baita haien jakintzapeko edozein egitate ere, hura larritu edo alda dezakeena, konpainiak kontratua egiteko unean jakin izan balu kontratua egingo ez zukeena edo garestiago egingo zukeena.
3. Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak ez du betebehar hori izango aseguratzaileak galdetegirik egiten ez badio edo, eginda ere, arriskua balioestean eragin dezaketen inguruabarrak badira eta ez badaude bertan jasota.

4. klausula.- ARRISKUA LARRITUZ GERO ASEGURATZAILEAK DITUEN AHALMENAK

1. Polizaren indarraldian aseguratzaileari jakinarazten bazaio arriskua larritu egin dela, hark kontratuko baldintzak aldatzea proposa dezake, bi hilabeteko epean, larritzea jakinarazi zaionetik zenbatzen hasita. Hala bada, aseguru-hartzaileak hamabost egun ditu proposamena jasotzen duenetik hura onartzeko edo baztertzeko. Baztertuz gero, edo erantzunik ematen ez badu, aseguratzaileak epe hori amaitutakoan kontratua desegin ahalko du, aseguru-hartzaileari jakinarazi ondoren, eta hamabost eguneko epea eman beharko dio berriz ere. Horiek igarotakoan, hurrengo zortzi egunetan, aseguru-hartzaileari jakinaraziko dio behin betiko deuseztatzea.
2. Aseguratzaileak, orobat, kontratua deuseztatu ahalko du, asegurudunari hilabeteko epean idatziz adierazita, arriskua larritu zela jakinarazi zuenetik.
3. Ezbeharren bat gertatzen bada arriskua larritzeko adierazpenik egin gabe, aseguratzaileak ez du eman beharko, hartzaileak edo asegurudunak fede txarrez jokatu badute. Bestela, aseguratzailearen prestazioa txikitu egingo da, adostutako primaren eta arriskuaren egiazko nolakotasuna ezagutuz gero aplikatuko litzatekeenaren arteko diferentziaren neurrian.
4. Arriskua aseguruak iraun bitartean larritzen bada, horregatik kontratua deuseztatuta gelditzen bada, asegurudunari egotz badakioke larritze hori, aseguratzaileak kobratutako prima osoa beretzat hartuko du. Larritze hori asegurudunari ez dagozkion kausengatik gertatu bada, hark eskubidea izango du abian den urtea amaitzeko falta den aldiari dagokionagatik ordaindutako zatia bueltan jasotzeko.

5. klausula.- ADIERAZPENEN ERRESERBEN EDO ZEHAZTASUNIK EZEN ONDORIOAK

l. Aseguratzaileak kontratua deuseztatu ahalko du aseguru-hartzaileari adierazpen bat bidaliz, hilabeteko epean, aseguru hartzaileak datuak gorde edo zehaztasunik gabekoak eman dituela dakienetik zenbatzen hasita. Aseguratzaileak adierazpen hori egiten duen unetik bertatik hasita, bere jabetzakoak izango dira abian den aldiari dagozkion primak, salbu eta bere aldetik doloa edo erru larria badago.

2. Baldin eta ezbeharra gertatzen bada aseguratzaileak aurreko zenbakian aipatutako adierazpena egin aurretik, haren prestazioa txikitu egingo da polizan adostutako primaren eta arriskuaren egiazko nolakotasunaren arabera dagokionaren arteko diferentziaren neurrian. Baldin eta datuak gorde badira edo zehaztasunik gabekoak eman badira aseguru-hartzailearen doloz edo erru larriz, aseguratzaileak ez du prestazioa ordaindu beharko.

6. klausula.- ARRISKUA TXIKITUZ GERO

l. Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak, kontratuak iraun bitartean, aseguratzaileari jakinarazi egin ahalko dizkio arriskua txikitzen duten inguruabar guztiak, hark kontratua egitean jakin izan balitu aseguru-hartzailearentzako kontratu abantailatsuagoa ekarriko luketenak.

2. Hala bada, primak estalitako aldia amaitutakoan, aseguratzaileak hurrengo primaren zenbatekoa dagokion neurrian txikitu beharko du, eta aseguru-hartzaileak, bestela, eskubidea izango du kontratua suntsiarazteko eta ordaindutako primaren eta ordaintzea legokiokeenaren arteko diferentzia bueltan jasotzeko, arriskua txikitu zela jakinarazi zuen unetik hasita.

7. klausula.- EZBEHARRA JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

l. Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak aseguratzaileari jakinarazi beharko dio ezbeharra gertatu dela hura gertatu eta gehienez ere zazpi eguneko epean. Hori bete ezean, aseguratzaileak adierazpenik ez egiteagatik edo atzeratzeagatik jasandako kalte-ordainak erreklamatu ahalko ditu.

2. Hainbat aseguratzaile badaude, jakinarazpena guztiei egin beharko zaie, eta besteen izena adierazi egin beharko da.

8. klausula.- TXOSTEN MEDIKOA

Erreklamaziogileak adierazten badu kalte pertsonalak jasan dituela, asegurudunak (10. artikuluan jasotakoaren arabera konpainiari nahitaez eman behar dion entzunaldiaren aurretik), espedientean jasotako dokumentazio medikoa bidali ahalko dio, eta iritzi medikoa eskatu ahalko dio, edo, bestela, erreklamaziogileari azterketa mediko bat egitea. Ondorioak txosten labur batena jaso beharko dira, eta hori asegurudunari bidali beharko zaio, formalki eskatu eta gehienez hiru astean.

9. klausula.- INFORMAZIO BETEBEHARRA

Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak, gainera, aseguratzaileari ezbeharraren inguruko inguruabar eta ondorio guztien berri eman beharko diote. Betebehar hori urratuz gero, kalte ordainerako eskubidea soilik galduko da dolo edo erru larria egonez gero.

10. klausula.- ELKARLAN BETEBEHARRA ETA EBAZPEN ADMINISTRATIBOAK

1. Aseguru-hartzaileak eta asegurudunak ezbeharra zuzen-zuzen izapidetzen lagundu behar dute, eta konpainiari ahalik eta lasterren eman beharko diote ezbeharrarekin lotutako edozein jakinarazpen judizialen, estrajudizialen edo administratiboren berri.

2. 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 61.4., 65., 67. eta 21. artikuluek xedatzen dutenez, eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak onetsitako Ondare Erantzukizunaren arloan Administrazio Publikoen Prozeduren Erregelamenduari jarraituz, asegurudunak nahitaez izapidetu beharko ditu behar bezala eta ebatzi beharko ditu harengana heldutako ondare erantzukizuneko erreklamazio guztiak.

Asegurudunak konpainiari entzunaldia emango dio erreklamazio guztietan, bai zenbatekoak frankizia gisa ezarritako zenbatekoa gainditzen duenean bai gainditzen ez duenean, ebazpena eman aurretik, eta eskuragarri jarri beharko dio espediente osoaren kopia bat. Horrez gain, izapidetu bitartean gomendagarriak diren informazio trukeak eta egiaztapenak ere egin beharko dira.

Konpainiak kontratua egikaritu bitartean gertatutako ezbehar guztien balioespena eta kuantifikazioa egin beharko du, hala dagokion espedientea izapidetu ondoren aseguru-hartzailearen edo asegurudunaren erantzukizuna adierazten denean nola ez denean, eta jasandako kaltearen zenbatekoa frankizia aplikagarriaren zenbatekoa baino txikiagoa bada ere.

Konpainiak, halaber, dagokion balioespena egin beharko du Udalak eskatzen badu, nahiz eta konpainia aseguratzaileak iritzi Udalak ez duela erantzukizunik.

3. **Konpainiak nahitaez azaldu beharko du konpainiaren jarrera entzunaldiaren izapidean, argudio juridikoekin, eta erreklamazioaren alde edo aurka agertuko da.**

4. Konpainiak nahitaez egikaritu beharko ditu Udalak emandako ebazpen guztiak, baina dagokion epaitegian aurkaratu ere egin ahalko ditu. Ildo horretan, Udalak ebatzi egin behar du, dagokion prozedura administratiboa egin ondoren, kaltea gertatu den eta kausalitate harremanik badagoen kaltearen eta administrazioaren artean, eta zein den kalte ordainaren balioa. Konpainia aseguratzaileak kalte ordainaren zenbatekoa ordaindu beharko du.

5. Erreklamaziogileak adierazten duenean kalte pertsonalak jasan dituela eta Udalak eta konpainia aseguratzaileak irizten badiote udal erantzukizuna badagoela, Udalak konpainiari eskatu ahalko dio kalteak balioesteko txosten medikoa egin dezala.

11. klausula.- ASEGURUDUNAREN DEFENTSA

I. Polizaren babespeko edozein ezbeharretatik eratorritako prozedura judizial orotan, aseguruduna bertaratuko da eta bere defentsaz arduratuko da udal zerbitzu juridikoen bitartez, eta, hala badagokio, izendatutako prokuradoreak ordezkatuko du.
2. Konpainiak bere defendatzaile eta ordezkariak izendatuko ditu.
3. Asegurudunaren defentsa eta ordezkaritza, auzi kriminaletan, aseguratzailearen aukerakoa izango da, defendatutakoa ados badago.
4. Edozein dela ere prozedura judizialaren epaia edo emaitza, asegurudunak aukera izango du epai edo emaitza horren aurkako lege errekurtsoak aurkezteko edo horrekin konformatzeko, eta berea izango da erabakia.

12. klausula.- KONTRATU ADMINISTRATIBOAK EGIKARITU BITARTEAN EGINDAKO KALTEEN INGURUKO ZIGOR EPAIAK

1. Aseguruduna herritar bati kalte ordaina ematera zigortzen duten epaiak, kontratu administratibo bat egikaritu bitartean jasandako kalteen ingurukoak (obra batzuetan erortzea, zerbitzu bat eman bitartean sortutako kalteak eta abar).

2. Esperientziak irakasten du zehaztu egin behar dela zer betebehar hartzen dituzten beren gain asegurudunak eta aseguratzaileak epai horiek egikaritzean, kalte ordainen ordainketa berandutu ez dadin, baina, aldi berean, bermatzeko esku hartzen duen kontratak bere erantzukizuna hartzen duela bere gain, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 196. eta 311. artikuluetan xedatzen duen moduan.

3. Horretarako, konpainiak betebeharra izango du asegurudunari dagokion kalte ordainaren zatia ordaintzeko, ahalik eta azkarren epaia jakinarazten denetik edo asegurudunak eskatzen duenetik, kalte ordaina jasoko duen herritarraren alde interesak sor ez daitezen.

4. Asegurudunak, halaber, nahitaez egin beharko ditu honako hauek:

- Epaia egikaritzea erabakitzeko herritarrari kalte ordainaren zenbateko osoa ordaintzeko ebazpen bat eman.

- Ebazpen horretan zehaztea egitateen erantzulea kontrata den.

- Hala bada, asegurudunak hari jasanaraziko dio kalte ordaina. Ondorioz, kontratari kobratuko dio herritarrari ordaindutako zenbateko osoa, beharrezkoa bada premiamendu prozedura erabiliz.

- Zenbatekoa jaso bezain laster, konpainia aseguratzaileari haren zatia ordainduko zaio, berandu baino lehen.

- Asegurudunak iritzi ondoren egitateen erantzukizuna kontratari dagokiola ez bada bidezkoa epe barruan eta behar bezala eskatzea hari jasanarazteko, zordun solidario bihurtuko da konpainiarentzat, hark aurreratutako zenbatekoagatik.

13. klausula.-

l. Kontratu horretatik eratorritako ekintzak preskribatu egingo dira bi urteren buruan, egin ahal diren datatik zenbatzen hasita.

2. Kontratu hau Espainiako estatuko jurisdikzioaren menpe dago, eta, haren barruan, asegurudunaren egoitzakoa izango da bertatik eratorritako ekintzetarako epaile eskuduna (Pasaia, Gipuzkoa).

3. Hargatik aurreko apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, eta zerbitzu finantzarioen erabiltzaileak babesteko araudiari jarraituz (Eco 734/2004 Agindua, martxoaren 11koa; 303/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa), eztabaida badago aseguru kontratu hau interpretatzean edo egikaritzean, aseguru-hartzaileak, asegurudunak, onuradunek eta hirugarren kaltetuek edo haren eskubidedunek erreklamazioa aurkeztu ahalko dute konpainiaren Erreklamazioen Zuzendaritzan, gutunez edo posta elektronikoz.
Halaber, konpainiako bezeroek erreklamazioak eta kexak egin ahalko dituzte, baita haren eskubidedunek ere, aseguru agenteek eta banku eta aseguru eragileen jarduketari dagokionez.
Erreklamazioa paperean edo bitarteko informatikoen, elektronikoen edo telematikoen bidez egin ahalko da, 59/2003 Legean, abenduaren 19koan, Sinadura Elektronikoari buruzkoan, xedatutakoari jarraituz.
Erreklamazioa ezetsi ondoren, edo erreklamaziogileak hura aurkeztu eta bi hilabete igaro ondoren, erreklamazioak egin ahalko ditu Zerbitzu Finantzarioetako Bezeroaren Defentsarako Mandatarian, bere gain Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko Erreklamazioen Zerbitzuak hartutako zerbitzuan (Castellana pasealekua 44, 28046, Madril; helbide elektronikoa: reclamaciones.seguros@meh.es; Bulego birtualak: www.dgsfp.es).

4. Alderdiak ados badaude soilik bideratu ahalko dira kontratu honen interpretazioaren eta betetzearen inguruko diferentziak arbitroetara, indarreko legediari jarraituz.

14. klausula.- KOMUNIKAZIOETARAKO EGOITZA

l. Aseguru-hartzailearen, asegurudunaren edo onuradunaren komunikazioak baliozkoak izango dira soilik idatziz bidali bazaizkio konpainiari; dena den, aseguru bitartekari bati egindakoek zuzenean hari egindakoen ondore berberak izango dituzte, kontrakoa adostu ezean.

2. Konpainiak aseguru-hartzaileari egindako komunikazioak baliozkotzat joko dira lehenak bestearen azken egoitza ezagunera bidaltzen baditu; aseguru-hartzailearenak konpainiaren egoitza sozialera bidali beharko dira, edo polizaren kudeaketan esku hartu duen bulegoarenera.

3. Konpainiari aseguru artekariak aseguru-hartzailearen izenean egindako komunikazioek hark egindakoen ondore berberak izango dituzte, salbu eta hark aurkakoa adierazten badu. Nolanahi ere, aseguru-hartzailearen berariazko baimena beharko da indarreko aseguru kontratua aldatzeko edo deuseztatzeko.

* * *

BALDINTZA PARTIKULARRAK (ONDARE ERANTZUKIZUNA)

- Aseguru-hartzailea: Pasaiako Udala
Egoitza: Donibane kalea 19 - Arizabalo Jauregia-
20110 -PASAIA- Gipuzkoa

I. ARRISKUAREN DATUAK:

Arriskua: Bakarra

ARRISKUAREN DESKRIBAPENA:

UDALAETA HAREN BI ERAKUNDE AUTONOMOAK (Pasaia Musikal eta udal euskaltegia - tutoretzapeko etxebizitzak barne-)

II. ZENBATEKO ASEGURATUAK ETA ESTALDURAK (zifrak eurotan)

GEHIENEKO KALTE ORDAINA EZBEHARREKO: 7.000.000 (Edozein kasutan aseguratzaileak polizak estalitako ezbehar bakoitzeko eman beharko duen gehienezko zenbatekoa, edozein dela ere ukitutako estalduraren eta biktimen edo kaltetuen kopurua).

URTEKO EDO ASEGURU ALDIKO MUGA 14.000.000

URTEKO MUGA: Aseguratzaileak aseguru aldi bakoitzeko bere gain hartuko duen gehieneko zenbatekoa, hala ezbehar bakarrean nola gehiagotan agortuta. Aseguru alditzat joko da baldintza partikularretan jasotako eraginen dataren eta iraungitzearen artekoa, edo primen azken ordainagirian ezarritako urteko aldia. Hasieran ezarritako iraupena urtetik gorakoa bada, aurreko muga hamabi hileko alditan aplikatuko da, polizaren ondore datatik zenbatzen hasita.
Aurrekoak jarraian adierazitako estalduretarako berariaz ezar daitezkeen mugak eta azpimugak izango ditu.

ESTALDURAK	ZENBATEKO ASEGURATUA/ AZPIMUGAK

OINARRIZKO ESTALDURA

Esplotazio estalduraraako 800.000 euroko azpimuga ezarri da biktimako.

LAN ISTRIPUEN EZ

Lan istripuengatiko erantzukizun zibilaren estalduraraako 800.000 euroko azpimuga ezarri da biktimako.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

PRODUKTUEN EZ

EZ LOKATIBOA

Errentatutako ondasun higiezinetako suteen edo leherketen kalteen estaldurarako 300.000 euroko azpimuga ezarri da ezbeharreko eta aseguru aldi edo urteko.

KUTSADURAKO EZ

Kutsadurako estaldurarako 1.000.000 euroko azpimuga ezarri da ezbeharreko eta aseguru aldi edo urteko.

III. FRANKIZIAK

Gehienez ere 600 euro ezbeharreko

* * *

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

BALDINTZA PARTIKULAR GEHIGARRIAK

HITZAURREA
Kontratu honek 50/1980 Legean, urriaren 8koan, Aseguru Kontratuari buruzkoan, xedatutakoari jarraitzen dio, eta hura arautzen duten agirietan ezarritakoari. Ez dira baliozkoak asegurudunaren eskubideak mugatzeko klausulak, berariaz eta idatziz onartu ez baditu.

Polizaren edukia ezingo da izan aseguru kontratu hau arautzeko agirietan ezarritakoaren aurkakoa. Edozein kasutan, polizaren edukia eta agirietan ezarritako klausulak ez badatoz bat, baldintza administratibo partikularren agiria gailenduko da.

DEFINIZIOAK

- ASEGURUDUNA: Arriskua duen interesaren pertsona titularri, zeinari kontratutik eratorritako eskubideak dagozkion. Asegurudunak aseguru-hartzailearen betebeharrak eta zereginak bere gain hartu ahalko ditu. Zehazki, aseguruduntzat joko dira honako hauek:

- Korporazioa, haren ordezkariak, zuzendariak, korporaziokideak, funtzionarioak, enplegatuak, mendekoak eta, oro har, haren zerbitzura dauden langileak, bere zereginak bete bitartean. Asegurudun izaera aplikatuko zaio zerbitzuak aipatutako erakundeentzat ematen dituzten langile orori, edozein dela ere laneko edo administrazioko mendekotasun harremana (plaza jabetzan duen funtzionarioa, bitartekoa, kontratatua edo antzekoa), baldin eta erakunde horiek ordaintzen badiete. Halaber, praktiketako edo prestakuntzan dauden langileak ere sartuta daude. **Udalaren aurrekontua** 2025erako: **27.299.277**
- euro

- Korporazioak antolatutako festen batzordeetako kideak, festak antolatzeko eta garatzeko jardueran, baita korporazioak babestutako eta sustatutako kultur jardueretan, aisiakoetan edo laguntzakoetan laguntzen duten, bertan elkarlanean diharduten edo horiek zuzentzen dituzten irakasleak, begiraleak edo gainerako langileak ere.

- Hartzailearen mendeko erakunde autonomoak eta udal enpresak, eta haien zerbitzura dauden langileak (Pasaia Musikal eta udal euskaltegia - tutoretzapeko etxebizitzak barne-) Erakunde horien jarduera honako hau da:

- **Udal euskaltegia**: helduen euskalduntzea eta alfabetatzea; hizkuntz normalizazioko lanak. 2023rako aurrekontua: **648.030** euro.
- **Pasaia Musikal**: Musika eskola; ikasketa arautu gabeak, 4 urtetatik, adin mugarik gabe. 2023rako aurrekontua: **989.401** euro.
-

AURREKONTU KONTSOLIDATUA, GUZTIRA: **28.248.797** euro

HIRUGARRENA: Edozein pertsona fisiko edo juridiko, hauek izan ezik:

1) Aseguru-hartzailea, aseguruduna edo ezbeharraren eragilea.
2) Aurreko apartatuan zerrendatutakoekin bizi diren senideak.

Hirugarrentzat joko dira kontratu honen ondoreetarako asegurudunak, korporazioaren laguntza eta zerbitzuak erabili bitartean.

KALTEAK: Poliza honek honako kalte hauek bakarrik ordainduko ditu:

- Gorputzekoak: Pertsona fisikoek jasandako lesioak, gaixotasunak edo heriotza.
- Materialak: Gauza baten kaltea, narriadura edo suntsipena, baita animaliei egindako kalteak ere.
- Galerak: Galeraren erreklamaziogileak jasandako eta polizak estalitako gorputzeko kalteen edo kalte materialen zuzeneko ondorioak diren galera ekonomikoak.

EZBEHARRA: Aseguruduna legezko erantzule izan dezakeen edozein egitate, baldin eta aseguru kontratu honen xedea bada eta jokoan jartzen baditu polizaren bermeak, adostutako baldintzetan eta moduan.

EZBEHAR UNITATEA: Ezbehar bakartzat joko da jatorri edo kausa bera duten egitateen edo inguruabarren katea, edozein dela ere kaltetuen eta egindako erreklamazioen kopurua. Ezbeharraren datatzat joko da gertakari kaltegarria amaitzeko unearen data.

GEHIENEKO KALTE ORDAINA EZBEHARREKO: Edozein kasutan aseguratzaileak polizak estalitako ezbehar bakoitzeko eman beharko duen gehienezko zenbatekoa, edozein dela ere ukitutako estalduraren eta biktimen edo kaltetuen kopurua.

AZPIMUGAK: Baldintza partikularretan adierazitako zenbatekoak, asegurudunak baldintza horietan zehaztutako berme bakoitzerako bere gain hartutako gehieneko mugak irudikatzen dituztenak; horretarako, biktimako azpimugatzat joko da polizak lesioek, gaixotasunak edo, are gehiago, heriotzak ukitutako pertsona fisiko bakoitzagatik, hargatik eragotzi gabe zenbateko aseguratu gisa baldintza partikularretan ezbeharrengatiko gehieneko muga gisa ezarritakoa.

URTEKO MUGA: Aseguratzaileak aseguru aldi bakoitzeko bere gain hartuko duen gehieneko zenbatekoa, hala ezbehar bakarrean nola gehiagotan agortuta. Aseguru alditzat joko da baldintza partikularretan jasotako eraginen dataren eta iraungitzearen artekoa, edo primen azken ordainagirian ezarritako urteko aldia.

FRANKIZIA: Poliza honen baldintza partikularretan kentzeko ezarritako zenbatekoa edo prozedura, ez dena aseguratzailearen konturakoa izango, zuzenean asegurudunak edo beste aseguru batek hartuko duelako bere gain.
Hortaz, asegurudunak ezbeharrengatiko kalte ordainak bakarrik emango ditu frankizia diren zenbatekoetatik gora aseguratutako zenbatekoaren mugara arte.

ERREKLAMAZIOA: Errekerimendu judiziala edo estrajudiziala, asegurudunaren aurka zuzenbidearen arabera egindakoa, polizak estalitako egitate kaltegarri baten erantzuletzat jotzen duena, edo aseguratzailearen aurkakoa, arrazoi horrengatik egindako ekintza zuzena dela eta. Asegurudunak aseguratzaileari erantzukizunak ekar ditzaketen egitate edo inguruabar guztien jakinarazpenak ere erreklamazioak izango dira.

ERATZUKIZUN ZIBIL OROKORRA/ONDAREKOA: Asegurudunari zerbitzuen titular gisa egotz dakiokeena da, araubide orokorrean edo administrazioaren ondare erantzukizunaren bidetik joz

gero egoki dakiokeena hirugarrenek haien ondasunetan eta/edo eskubideetan jasandako edozein lesio fisiko, material eta/edo ondoriozkorengatik, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta lesioa udal zerbitzuen funtzionamendu normalaren zein anormalaren ondorioa bada.

Barruan hartzen ditu honako hauek:

- Asegurudunari egotz dakiokeen erantzukizun zibila, hirugarrenei bere gobernu organoen egintzen edo bertako funtzionarioen, agenteen edo soldatapekoen egintzen ondorioz hirugarrenei egindako kalte materialen eta/edo gorputzekoen ondoriozkoa, baldin eta dagozkien zereginak betetzen ari baziren.
- Asegurudunari egotz dakiokeen erantzukizun zibila, bere ondareko bitarteko materialen eta ondarekoen, hau da, eraikinen eta instalazioen, ur tangen, hoditerien eta gainerako eraikuntzen jabetzaren, ustiapenaren eta erabileraren edo edozein titulu juridikoren ondorioz bere eskura dagoen edozeinen ondorioz hirugarrenen ondasunei edo eskubideei egindako kalteengatik.
- Asegurudunari egotz dakiokeen erantzukizun zibila, zerbitzu publiko bate ematearen edo haren funtzionamendu normalaren edo normalaren ondorioz hirugarrenen ondasunei eta/edo eskubideei eragindako kalteengatik, baldin eta zerbitzu horren kudeaketa Udalari badagokio.
- Asegurudunari ondasun higiezinen eta/edo higigarrien errentari, usufruktudun eta/edo erabiltzaile gisa egotz dakiokeen erantzukizun zibila, ikastetxeak, zaharren egoitzak, ospitaleak, kiroldegiak eta abar barne.

Nolanahi ere, ondare erantzukizunaren estaldura “Salbuespenak” kapituluan beren-beregi zehaztutako baldintzen mugen pean dago.

ASEGURUAREN XEDEA

Aseguru kontratuak bermatu egingo ditu erantzukizun zibilarengatiko/ondare erantzukizunarengatiko ondorio ekonomikoak, indarreko araudiari jarraituz, aseguru honen indarraldiak zuzenean, era subsidiarioan edo solidarioan asegurudunari egoki dakizkiokeenak zuzenbide publikoko pertsona juridiko gisa hirugarrenei nahi gabe egindako kalte eta galera gorputzekoengatik edo materialengatik eta/edo kalte eta galera gorputzekoen edo materialen ondoriozkoengatik, udalerria, bere instalazioak, udal jabetzak eta polizan asegurudun gisa agertzen diren entitateak administratzeko bere eskumenak erabili bitartean egin baditu.

ASEGURUAREN IRISMENA

Estalita dago pertsona fisiko bati edo pertsona juridiko bati honako hauen ondorioz eragindako lesioengatik Udalari egotz dakiokeen erantzukizun zibila/ondare erantzukizuna, baina hauena soilik:

- Emandako zerbitzu publikoen jarduketa materialak, festa batzordeen jarduketak barne.
- Udalak erabiltzen dituen instalazio eta bitarteko material higiezinen zein higigarrien kontserbazio eta mantentze egoera, edozein dela ere haien titulua, haien jardueraren garapenerako.

- Erantzukizun zibila, ondasun higigarrien eta higiezinen jabe eta/edo usufruktudun eta/edo errentari izaera, baita errentari gisa edo beste edozein titulurengatik erabiltzen dituen ondasun higiezinen jabeenganakoa.
- Askotariko jarduerak antolatzea (sozialak, kirolekoak, kulturalak, jaietakoak eta abar).
- Suteak, leherketak, keak, gasak, usainak, urak, lurrunak, lurzorua hondoratzea eta/edo luiziak, baldin eta istripuzkoak eta bat-batekoak badira.
- Animaliak edukitzea.
- Ur eta estolda zerbitzuen banaketa orokorrerako eta harguneetarako instalazioek egindako kalteak, erantzukizuna asegurudunari egotz badakioke, kalte horien jatorria haiek erori, matxuratu edo hautsi izana bada. Ildo horretan, hargune instalaziotzat jotzen dira banaketa lerro nagusitik sortutako bideratzeak, higiezin bakoitzeko sarreran ezarritako ixteko giltzara artekoak.
- Udalak edo haren kontratistek egindako lanak egikaritzetik:
    - Espaloien, bideen, errepideen, lorategien eta parkeen mantentze eta kontserbazioa.
    - Bere eskumeneko uraren banaketa eta saneamendua eta estolderia, argiteria publikoa eta abar.
    - Udalaren edo tokiko administrazioaren eta entitate autonomo asegurudunen mendeko eraikinen eta instalazioen mantentze lanak.
    - Bere eskumeneko hoditeriak, tutuak eta abar mantentzea eta konpontzea.
    - Udalari atxikitako langileek egindako eraikuntzen eta instalazioen eraikitze lanak,
    - Zaintza eta segurtasun zerbitzuak, baita suzko armen erabilera ere.

- Baldintza berezi hauen “SALBUESPENAK” atalean xedatutakoa hein batean baliogabetuz, estalita gelditzen da asegurudunari egotz dakiokeen erantzukizun zibila, langileek edo beste hirugarren batzuek motordun ibilgailuak erabiltzearen ondorioz hirugarrenei egindako kalteena, aseguruduna ez bada ibilgailu horien jabea edo edukitzailea.

  Puntu honetan jasotako kalte ordainak baldintza hauek izango ditu:

    - Ezbeharra gertatzean aipatutako enplegatuak edo hirugarrenak asegurudunak agindutako lanak edo zereginak egiten egotea, aseguruaren xede den jardueraren eremuan.
    - Aipatutako enplegatu edo hirugarrenak zuzenean erantzuletzat jotzea.
    - Istripua eragin zuten ibilgailuek sortutako kalteak ordaintzeko adina berme sinatuta ez izatea automobilentzako poliza espezifikoen bitartez.
    - Aipatutako polizak nahikoak ez direla adierazi izana, eta asegurudunari egoztea kalteen ordainari aurre egiteko legezko erantzukizun zibila.

  Nolanahi ere, apartatu honetan jasotako bermeak soilik aplikatuko dira automobilaren nahitaez sinatu beharreko erantzukizun zibileko asegurua arautzeko xedapenetan ezarritako kalte ordainen mugetatik harago, dagokion poliza sinatu denean eta ez denean.

-Lurrez salgaiak eta ondasunak, orokorrean, garraiatzea, zamalanak barne. Barnean dago asegurudunak bere asegurudunaren jabetzako ondasunak edo alokairuan edo gordailuan dituenak garraiatzeko garraio enpresak kontratatzeagatiko erantzukizuna, baita ondasun horiek garraiatzean jasan ditzaketen kalteena ere.
- Askotariko udal zerbitzuek udalekuak eta antzerako jarduerak eta kanpainak antolatzea.

- Festa publikoak antolatzea, esaterako, dantzaldiak, erromeriak, zezenketak, lore jokoak eta kultur ekitaldiak, orokorrean. Kultur ekitaldien barruan egongo da aisiako eta denbora libreko jarduerak antolatzea (kirol probak, lasterketak, haurren udalekuak eta Espainiako lurraldeko edozein lekutan egindako adinekoentzako oporrak).

- Suziriak, su artifizialak eta trakak botako diren festak antolatzea.
- Udalaren kontratistek egindako obrak. Estalita gelditukо da zuzenean, solidiarioki edo subsidiarioki udalari lan horien ondorioz egoki dakiokeen erantzukizun zibila.
- Udaltzaingoaren jarduna.
- Bermatuta egongo da Babes Zibileko langileen, kontzientzia eragozleen eta gainerako boluntarioen jarduna.
- Alkateak eta udal korporazioko kideek beren jardunean egindako bidaiak.
- Baldintza partikular hauen “SALBUESPENAK” apartatuan xedatutakoa partez baliogabetuz, estalita gelditukо da honako erantzukizun zibil hau: asegurudunari galdagarri izan dakiokeena asegurudunaren enplegatuen ondasun materialei egindako kalteena, ezbeharreko 15.000 euroko eta aseguru urteko 30.000 euroko mugekin, honako hauek betetzen badira:

  - Erreklamazioaren xedea ez bada dirua, eramaile tituluak, bitxiak edo baliozko objektuak, hau da, enplegatuen objektu pertsonalak, unitateko 1.500 euro baino gehiagoko balioa dutenak.
  - Erreklamazioaren xedea asegurudunaren instalazioren baten barruan egotea, edo kanpoan, leku egokian eta asegurudunaren zaintzapean.

  Salbuetsita eta, hortaz, estaldura horretatik kanpo daude norberak bere ondasunei egindako kalteak, baita lapurretagatik, ebasketagatik edo espoliazioagatik egindako kalteak ere.

ERANTZUKIZUN ZIBIL PROFESIONALA

Bermatuta dago asegurudunaren erantzukizun zibila, bere jarduera profesionalean (langile tekniko tituludunak) akats edo omisio profesionalen ondorioz gorputzeko kalteak edo kalte materialak edo ondoriozko galerak sortzen dizkietenak hirugarrenei, baldin eta korporazioaren konturako haien jardunean gertatu badira.

Bereziki, bermatuta gelditukо dira hauetatik eratorritako erantzukizunak:

- Eraikuntzako, muntaketako, handitzeko edo eraberritzeko lanen eta/edo proiektuen zuzendaritza eta/edo gainbegiratze lanak, gainbegiratutako, proiektatutako, eraikitako, muntatutako, handitutako edo eraberritutako obrek beraiek jasandako kalteak kanpo.
- Berezko sendagileen eta haien laguntzaile sanitarioen jarduna, larrialdiko sendaketak, enpresako zerbitzu medikoak eta udalaren mendeko langileen eta mendeko langile izateko izangaien azterketa klinikoak egiten ari direnean, baita beren jardunerako beharrezkoak diren tresnak erabiltzearen ondoriozkoa ere.
- Korporazioaren mendeko osasungintzako langileen jardun profesionala, laguntza sozialeko jardueran (adinekoak, desgaitasuna dutenak, toxikomanoak eta antzekoak).

Erantzukizun zibil profesionaleko estaldura horrek sinatutako gainerako aseguruen, nahitaezkoen zein nahitaezkoak ez direnen, diferentziagatik eta/edo gehiegizkoagatik aplikatuko da.

DEFENTSA GASTUAK ETA FIDANTZA KRIMINALAK

Baldintza partikularretan zehaztutako zenbateko aseguratuaren mugara arte, eta erreklamazioaren xedea polizaren estalduren barne badago, bermatuta egongo dira honako hauek ere:

- Prozeduraren kostu zibila bermatzeko eskatutako fidantza judizialak eratzea.
- Kostu judizialak, polizaren arabera asegurudunak ordaindu beharreko kalte ordainaren eta asegurudunak ezbeharrean duen erantzukizunaren zenbateko osoaren arteko neurri berean.
- Baldin eta asegurudunaren aurkako prozesu judizialetan zigor epaia badago, asegurudunak erabaki egin beharko du komeni zaion dagokion goragoko auzitegian errekurtsoa aurkeztea; bidezkoa iruditzen ez bazaio, interesdunari jakinaraziko dio, eta hark eskubidea izango du bere kontura aurkezteko. Orduan, aurkeztutako errekurtsoak asegurudunaren interesen aldeko epaia badakar, eta haren konturako kalte ordaina txikitzen badu, nahitaez ordaindu beharko ditu errekurtso horrek sortutako gastuak.

GASTUEN LIBERAZIOA

- Ulertzen da polizako zenbateko aseguratua libre dagoela aipatutako gastu judizialen kenkari orotatik, baldin eta horiek, ordaindutako kalte ordainari gehituz gero, gainditu egiten badute ezbehar bakoitzeko muga, Espainiako auzitegietan egindako ekintzetan.
- Estalduraren lurralde eremua berariaz handitzea sinatzen bada, eta ekintza atzerriko auzitegietan egiten bada, ez da gastuen liberazioaren klausula aplikatuko, eta horiek beti egongo dira ezbeharreko zenbateko aseguratuan, eta hori asegurudunaren konturako gehieneko zenbatekoa izango da.

ESTALDURA GUZTIETAKO SALBUESPENAK

Poliza honek ez ditu estaltzen honako hauek:

- Nahita edo fede txarrez egindako ekintzak, asegurudunak edo haren erantzukizunpeko pertsonak eginak, edo nahita legezko arauak urratzetik edo ez betetzetik eratorriak.
- Gerra zibil edo nazioarteko baten, herri matxinada edo jaikialdi baten, terrorismoaren, lurrikaren eta uholdeen eta bestelako ezohiko gertakarien ondoriozko kalteak.
- Edonolako zehapenen edo isunen ordainketa.
- Polizan frankizia gisa ezarritakoa baino zenbateko txikiagoko kalte ordaina duten ezbeharrak.
- Erreakzio edo erradiazio nuklearra edo edonolako kutsadura erradioaktiboa, hala arlo horretako legedi espezifikoan jasotakoa nola jaso gabea.

- Asbestosi erreklamazioak edo bestelako edozein gaixotasunengatikoak, minbizia barne, amiantoa edo amiantoa duen edozein produktu fabrikatzearen, egitearen, garraiatzearen, muntatzearen, saltzearen edo erabiltzearen ondoriozkoenak.
- Asegurudunari erabiltzeko eta lupertzeko, manipulatzeko, eraldatzeko, konpontzeko, zaintzeko, gordetzeko edo garraiatzeko emandako eta/edo lagatako ondasunei egindako kalteak, edo haren jabetzapean edo kontrolpean daudenei egindakoak, erantzukizun zibil lokatiboaren estaldurarako xedatutakoa salbu.
- Airez nabigatzeko edo airean egoteko egindako edozein gailuk edo aireontzik egindako kalteetatik eratorriak.
- Udaleko eraikuntza teknikariek proiektatutako edo zuzendutako obrek edo haiek esku hartzen dutenek eta haiei agindutakoek jasandako kalteak, ezta horiek egikaritzeko erabilitako ondasunek jasandakoak ere.
- Motordun ibilgailuen erabileragatik eta zirkulazioagatik egindako kalteak, motordun ibilgailuen zirkulazioagatiko erantzukizun zibilaren eta aseguruaren inguruko araudian jasota badaude.
- Lurra, ura edo atmosfera kutsatzeak sortutako kalteen ondoriozko erantzukizun zibila, non eta ez den udalak aurreikusi ezinezko eta ondore saihetsezinezko bat-bateko, tupusteko eta ustekabeko gertakari baten ondorioa; eta 26/2007 Legean, urriaren 23koan, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoan, eta haren garapen araudian oinarritutako ingurumen erantzukizunagatiko edozein erreklamazio, administrazio publikoak exijitutakoa edo hark exiji dezakeena.
- Urtegiak edo presak apurtzearen edo itsasoko, ibaietako, ubideetako, portuetako edo lakuetako urak infiltratzearen edo gainezka egitearen ondoriozko erantzukizun zibila.
- Arriskutsutzat jotako salgaiak (leherkorrak, sukoiak, erregaiak, korrosiboak edo toxikoak) garraiatzearen eta biltegiratzearen ondoriozko erantzukizun zibila.
- Su artifizialetako piroteknikarien zuzeneko erantzukizun zibila.
- Zezenketa tradizionaletan (entzierroak, abelburuak askatzea, bigantxak eta abar) era aktiboan parte hartzen dutenek, profesional zein zaleek, jasandako kalteen ondoriozko erreklamazioak.
- Organismo asegurudunaren kontura eta haren aginduz edonolako ustiapen industrialak; obrak; zerbitzuak; irakaskuntzako jarduerak edo jarduera profesionalak; eta instalazioak eraikitzeko edo mantentzeko; ekitaldi publikoak antolatzeko, priotekniako, merkatuko salmentako; zaborrak eta hondakinak jasotzeko eta antzekoetako jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoen zuzeneko erantzukizun zibila.
- Zehazki, ez ditu estaltzen asegurudunak edo hirugarren batek jasandako galerak (indibidualak zein kolektiboak), erreklamazioak, pertsonen edo ondasunen kalteak, erantzukizunak, kostuak edo nolanahiko gastuak, ezta poliza honen arabera bestelako arriskuetarako estalita egon daitekeen beste edozein prestazio ere, zuzenean edo zeharka epidemia eta/edo pandemia batek (autoritate eskudunek halakotzat joa) edo gaixotasun infekzioso batek kausatzen baditu, haietatik sortzen badira, haien emaitza badira edo haiekin lotuta badaude. Aseguru honetatik kanpo gelditzen da halaber edozein galera, erreklamazio, pertsonen edo ondasunen kalte, erantzukizun, kostu edo gastu, zuzenean edo zeharka epidemia, pandemia, gaixotasun infekzioso edo haren edozein aldaera edo mutazio kontrolatzeko, prebenitzeko edo deuseztatzeko egindako ekintzek edo hartutako neurrien porrotak kausatzen baditu, haietatik sortzen bada, haien emaitza bada edo haiekin lotuta badago. Aseguratzaileak ez du inolako ordainketarik egingo horrelakoetan. Salbuespen hori gailendu egingo zaio polizan edo haren edozein gehigarritan ager daitekeen kontrako edozein xedapeni.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

- Aseguru honek inola ere ez ditu estaliko edozein motatako kalteak edo galerak, zuzenean edo zeharka asegurudunaren sistema informatikoak erabiltzearen edo haietan eragiketak egitearen ondoriozkoak badira edo haien barne jatorria asegurudunaren sistemak edo haren hornitzaileak badira edo giza akats baten edo jokabide maleziatsu baten ondorioa badira, ez hirugarrenek ordenagailuetan, sistemetan, programa informatikoetan, kode maleziatsuak eta birus informatikoak sartzean egindakoak ez beste edozein prozesu edo sistema elektroniko edo informatiko egitean sortutakoak, ezta asegurudunaren sistemaren kontrako zibererasoen edo eraso eragiketen ondoriozkoak ere.

LAN ISTRIPUAGATIKO ENPRESAREN ERANTZUKIZUN ZIBILA

ESTALDURAREN IRISMENA

Estaldura honek bermatzen du asegurudunari jarduera aseguratuan gertatutako lan istripuengatik eskatutako erantzukizun zibila, indarreko legediari eta polizan jasotako mugei eta estipulazioei jarraituz.

Zehazki, honako hau hartzen du estaldura honek:

- Enpresaren erantzukizun zibila, hau da, asegurudunari bere nominapeko eta lan istripuen aseguruan altan emandako langileek, aldi baterako edo iraupen jakineko lan harremana duten langileek, aldi baterako laneko enpresek kontratutakoek eta lan harremanetik harago asegurudunaren mendean daudenek jasandako lan istripuengatik eskatutakoa.
- Asegurudunari bestelako kontratistek, berezko eta besteen azpikontratistek eta horien guztien mendeko langileek jasandako lan istripuengatik eskatutako erantzukizun zibila.

Lan istripuengatiko erantzukizun zibila estaltzeko poliza honen baldintza partikularretan biktimako azpimuga gisa ezarritako zenbatekoa aplikagarria izango zaie aipatutako kasu guztiei.

LAN ISTRIPUEN ERANTZUKIZUN ZIBILAREN SALBUESPENAK

- Lan istripu gisa sailkatu ez diren edo lan istripuen asegurutik kanpo dauden gertakarien erantzukizuna, eta lan istripuen nahitaezko aseguruan alta emanda ez dauden edo dagokien araubide bereziko nahitaezko asegururik ez duten langileen erreklamazioak.
- Gaixotasun profesionalagatiko edo profesionalak ez diren baina langileak bere lana egiteagatik izandako gaixotasunen (adibidez, miokardio infartua, tronbosia, burmuin hemorragia eta antzeko etiologiako gaixotasunak) kalte ordainak eta arreta gastuak.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

- Edonolako isunak eta zehapenak, eta indarreko legedian zigorrerako ezarritako prestazioetako errekarguak.
- Enpresaburuaren kontratuko betebeharren ez betetze orokorrengatiko erreklamazioak, gorputzeko kalteenak badira.
- Kalte materialen ordainketa.
- Poliza honen arabera asegurudunak ez diren kontratisten eta azpikontratisten erantzukizunak.

EGINDAKO LANEN ERANTZUKIZUN ZIBILA

ESTALDURAREN IRISMENA

Estaldura honekin, berariaz zehazten da bermatu egingo dela asegurudunak honako hauen ondoriozko kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila:

- Produktuak edo ondasunak, eman ondoren.
- Egindako lanak, jaso ondoren.

DEFINIZIOAK

Estaldura honen ondoreetarako, honela ulertuko dira honako hauek:

Produktua: Edozein ondasun higigarri edo higiezin eta ondasun higigarri edo higiezinen substantzia, osagai edo pieza, asegurudunak fabrikatutakoa, muntatutakoa, mihiztatutakoa edo merkaturatutakoa.

Lana: Asegurudunak zuzenean edo haren mendekoren batek egindako obrak, muntaketak edo instalazioak.

PRODUKTUEN ERANTZUKIZUN ZIBILAREN SALBUESPENAK

- Lanek edo obrek beraiek jasandako kalteak edo akatsak.
- Akats edo bizio ezagun edo ustezko baten ondorioz obrak edo lanak ikuskatzetik, konpontzetik, eraistetik, ordeztetik edo erabiltzeari uztetik eratorritako gastuak edo kalte ordainak.
- Obrek, lanek edo zerbitzuek beren jatorrizko xedea bete ezin izatetik edo iragarritako nolakotasunak edo ezaugarriak ez izatetik eratorritako galerak.
- Zuzenbide positibo aplikagarriko edozein arau nahita hautsiz egindako obrek eta lanek egindako kalteak; eta teknika egokiz, oro har onartutako arauen arabera eta kasu horietan

aplikagarriak direnei jarraituz egin ez diren obrek, lanek edo zerbitzuek egindakoak; eta jabeak edo kontratatzaileak emandako jarraibideetatik nahita aldentzean gertatutakoak, baldin eta aseguruduna kontratista edo azpikontratista bada.

- Produktuen erabiltzaileei ekarritako galerak, horiek haien jatorrizko funtzioa bete ezin izatearen edo iragarritako nolakotasunak ez izatearen ondoriozkoak.

LURRALDE EREMUA

Polizak soilik estaliko ditu Espainiako jurisdikzioan Espainian gertatutako eta Espainiako lurraldeko indarreko lege xedapenen arabera ezarritako erantzukizunak edo bestelako obligazioak dakartzaten egitateengatik egindako erreklamazioak.

Alkateak eta udal korporazioko kideek beren jardunean egindako bidaietarako lurralde eremua Europar Batasuna izango da.

DENBORA EREMUA

Kontratu honen xede diren erantzukizun zibileko modalitateetarako, polizako gainerako baldintzen arabera, haren indarraldian gertatutako kalteak estaltzen dira.

Berariaz adostu denez, aseguruaren estaldura aldia edozein kausagatik amaitutakoan amaituko dela berme hau ere; dena den, aseguratzaileak estaldura emango da asegurua amaitu eta hurrengo HOGEITA LAU HILABETEETAN, poliza indarrean zegoela egindako eta orduan gertatutako egitateengatik egindako erreklamazioetarako.

Epaitegietara joz gero, estalduraren denbora eremuaren muga bakarra izango da auzia behin betiko amaitzen denekoa.

ASEGURUAREN PRIMAK

Erregularizatzea asegurudunari eta aseguru-hartzaileari dagokie, eta haiek emango diote aseguratzaileari dagozkien zifren berri, ezarritako aldia mugaeguneratu eta hurrengo hogeita hamar egunetan. Adierazitako erregularizazioetako primen ordainketa mugaeguneratzeko data izango da dagokion ordainagiria kobratzeko aurkezten den eguna, eta hura ordaintzeko graziazko epe bat egongo da, mugaeguneratze hori zenbatzen hasi eta hilabetekoa.

Baldin eta ezbeharra gertatzen bada aurreko paragrafoan aipatutako erregularizatze betebeharra bete gabe, edo adierazpena zehaztasunik gabe bete bada, aseguratzailea prestaziotik libre gelditzuko da, omisioaren edo zehaztasunik ezaren jatorria asegudurunaren edo aseguru-hartzailearen fede txarra bada.

Fede txarrik egon ez bada, aseguratzailearen prestazioa murriztu egingo da, kalkulatutako primaren zenbatekoaren eta zenbatzeko oinarri gisa hartzen diren magnitudeen egiazko zenbatekoa ezagutuz izanez gero aplikatuko zatekeenaren arteko diferentziaren neurrian.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

Zenbateko aseguratua eta primak birbalorizatzea adostu den aseguru luzagarrietan, urtean behin birbalorizatuko da, baldintza partikularretan adostutako birbalorizatze ehunekoa aplikatuta. Azpimugak eta frankiziak, ordea, ez dira aldatuko.

Kontratua isilbidez luzatzen bada, geroko aldietako prima lortuko da primen tarifen baldintza partikularretako “oinarriei” aktuarioen irizpide teknikoetan oinarrituta konpainiak une bakoitzean dituen primen tarifak aplikatzetik, hain zuzen. Halaber, kontuan hartuko dira sortutako arriskua handitzeko edo txikitzeko bermeen edo kausen aldaketak, baldintza orokorretan ezarritakoari jarraituz.

****

BEREZKO ONDASUNEN KALTEEN ASEGURUA

BALDINTZA OROKORRAK

SARRERA

I. ATARIKOA

1. artikulua.

Aseguru kontratu honek bere baldintza orokor, berezi eta partikularrek xedatutakoari jarraitzen dio, eta, kontrakoa adostu eta asegurudunarentzako onuragarriagoa izan ezean, baita Aseguru Kontratuen Legeari (50/1980 Legea, urriaren 8koa) eta kontratazio administratiboari buruzko araudiari ere.

II. DEFINIZIOAK

2. artikulua.

Poliza honen ondoreetakoa, honela ulertuko dira hauek, oro har:

- ASEGURATZAILEA: Poliza honen entitate igorlea, zeinak, aseguratzaile moduan eta prima kobratuz, bere gain hartzen duen kontratu honen xede diren arriskuak estaltzea, bertan ezarritako baldintzei jarraituz. Entitatea, aseguru jardunean, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren gainbegiradapean dago.

- - ASEGURU-HARTZAILEA: Kontratu hau konpainiarekin sinatzen duen pertsona, zeinari dagozkion bertatik eratorritako betebeharrak eta zereginak, asegurudunari dagozkionak salbu.
- ASEGURUDUNA: Kontratutik eratorritako eskubideak dagozkion pertsona.
- - ONURADUNA: Ezbeharra izanez gero polizaren arabera jaso beharreko kalte ordainak kobratzeko asegurudunak izendatutako pertsona.
- POLIZA: Aseguru kontratua formalizatzen duen dokumentua, baldintza orokor hauek, baldintza partikularrek eta, hala badagokio bereziek, alderdiek indarraldian sinatutako aldaketek eta gehigarriek eta aseguruaren abaroan igorritako gainerako dokumentuek osatua.
- PRIMA: Aseguruaren prezioa, zeinaren ordainagirian, gainera, sartuko diren aseguru-hartzaileari legez jasanaraz dakizkiokeen zergak eta errekarguak.
- ZENBATEKO ASEGURATUA: Polizaren baldintza partikularretan ezarritako zenbatekoa, konpainiak ezbehar bakoitzagatik ordaindu beharreko gehieneko kalte ordainaren muga dena.
Kantitate hori ezberdina izan daiteke hauen artean adostutako aseguru modalitatearen arabera:
BALIO OSOAREN ASEGURUA: Aseguru modalitate hau datza ondasunen balio osoa eta erreala aseguratzean. Baldin eta ezbeharra gertatzean zenbateko aseguratua txikiagoa bada ondasunen balio erreala baino, dagokion kalte ordaina zehazteko proportzio araua aplikatuko da.

BALIO PARTZIALAREN ASEGURUA: Aseguru modalitate hau datza polizako baldintza partikularretan finkatutako ehuneko jakin batera arte aseguratzean, ondasun aseguratuen balio oso eta erreal gisa aitortutako zenbatekoa oinarri hartuta. Ezbeharra gertatuz gero, gehienez ere ehuneko horren zenbatekoa emango da kalte ordain gisa, baldin eta ondasun aseguratuen balio erreal eta osoak ez badu gainditzen polizan aitortutako zenbatekoa. Ondasunen aitortutako balio erreal eta osoa gainditzen bada, proportzio araua aplikatuko da dagokion kalte ordaina zehazteko.

. KALTE ORDAINAREN MUGADUN ASEGURUA: Aseguru modalitate hau datza arriskua osatzen duten ondasunen balio erreala aseguratzea, aseguru-hartzailearen erantzukizuna polizaren baldintza partikularrean jasotako zenbateko finko batekin mugatuta. Baldin eta aitortutako zenbatekoa txikiagoa bada ezbeharra gertatzen denean ondasun aseguratuek duten balio erreala baino, dagokion proportzio araua aplikatuko da.
LEHEN ARRISKUKO ASEGURUA: Aseguru modalitate hau datza zenbateko jakin bat aseguratzean, eta arriskua horretara arte estaltzea, edozein dela ere hura osatzen duten ondasunen balio erreala eta osoa. Beraz, ez da infraasegurutik eratorritako proportzio araua aplikatuko.
- EZBEHARRA: Ondorio ekonomikoak polizak estaltzen dizkion egitatea. Gertakari beretik eratorritako kalte guztiak ezbehar bakarra dira.

III. ASEGURUAREN XEDEA ETA IRISMENA

3. artikulua. ESTALITAKO ARRISKUAK

Poliza honekin, konpainiak baldintza partikularretan berariaz jasotako aseguru estaldura guztiei dagozkien prestazioak estaltzen ditu, estaldura guztientzako baldintza orokorretako mugei eta ezaugarriei jarraituz, baita kasu bakoitzean bermatutakoen baldintza espezifikoetakoei ere.

4. artikulua. KANPO DAUDEN ARRISKUAK.

Konpainiak, estaldura eta berme bakoitzean ezarritako salbuespen eta muga espezifikoez gain, inola ere ez du estaliko honako hauen ondorioz sortutako kalterik edo galerarik:
a) Asegurudunaren fede txarra.

b) Gatazka armatuak (gerra adierazpen ofiziala dagoenean zein ez dagoenean), iraultza, errebolta, sedizioa, terrorismoa, herri matxinadak eta jaialdiak, edozein gobernuren edo tokiko autoritate edo autoritate publikoren agindupeko konfiskatzea edo nazionalizatzea.
c) Indar Armatuen edo segurtasun indar eta kidegoen ekintzak edo jarduketak, bake garaietakoak.
d) Sumendi erupzioa, urakana, ekaitza, lurrikara, mugimendu sismikoak, luiziak, hondoratzeak edo lur mugimenduak eta, oro har, beste edozein fenomeno atmosferiko, sismiko edo geologiko, baldintza orokorretan jasotako kasuetan izan ezik.
e) Gorputz sideralen edo edo aerolitoak erortzea.
f) Erreakzio edo erradiazio nuklearra edo kutsadura erradioaktiboa.
g) Uraren, airearen edo lurzoruaren eta, oro har, ingurumenaren, kutsadura, poluzio edo korrosioa, eta haien edozein aldaketa edo eragin kaltegarri.
h) Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioek estalitako egitateak, eta botere publikoek «katastrofe edo kalamitate nazional»tzat jotakoak.
i) Izaera ezohikoa edo katastrofikoa izanik ere Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak ez badu asegurudunaren eskubidea onartzen, ez duelako erregelamenduan edo data horretan indarrean dauden xedapen osagarrian ezarritako arauren bat betetzen, eta organismo horrek ezarritako gabealdian gertatutakoak.
j) Aseguru honek ez ditu estaltzen asegurudunak edo hirugarren batek jasandako galerak (indibidualak zein kolektiboak), erreklamazioak, pertsonen edo ondasunen kalteak, erantzukizunak, kostuak edo nolanahiko gastuak, ezta poliza honen arabera bestelako arriskuetarako estalita egon daitekeen beste edozein prestazio ere, zuzenean edo zeharka epidemia eta/edo pandemia batek (autoritate eskudunek halakotzat joa) edo gaixotasun infekzioso batek kausatzen baditu, haietatik sortzen badira, haien emaitza badira edo haiekin lotuta badaude.
Aseguru honetatik kanpo gelditzen da halaber edozein galera, erreklamazio, pertsonen edo ondasunen kalte, erantzukizun, kostu edo gastu, zuzenean edo zeharka epidemia, pandemia, gaixotasun infekzioso edo haren edozein aldaera edo mutazio kontrolatzeko, prebenitzeko edo deuseztatzeko egindako ekintzek edo hartutako neurrien porrotak kausatzen baditu, haietatik sortzen bada, haien emaitza bada edo haiekin lotuta badago.
Aseguratzaileak ez du inolako ordainketarik egingo horrelakoetan.
Salbuespen hori gailendu egingo zaio polizan edo haren edozein gehigarritan ager daitekeen kontrako edozein xedapeni.

<u>Gaixotasun kutsakorrak kanpo uztea</u>

a) Aseguru kontratu honetan aurkakoa dioen edozein xedapen gorabehera, aseguru kontratu honetatik kanpo gelditzen da zuzenean edo zeharka gaixotasun kutsakor batek edo

gaixotasun kutsakor baten beldurrak edo mehatxuak (egiazkoa zein hautemana) sortutako, hark lagundutako, haren ondoriozko, hartatik eratorritako edo harekin lotutako edozein galera, kalte, erantzukizun, erreklamazio, kostu edo gastu, nolabait edo bestelako edozein sekuentzian laguntzen duen beste edozein kausa edo gertakari gorabehera.

b) Dokumentu honetan, gaixotasun kutsakortzat joko da organismo batetik bestera edozein substantziaren edo agenteren bitartez kutsa daitekeen edozein gaixotasun.

i. Substantzia edo agente horien artean daude –baina ez hauek soilik– birusak, bakterioak, parasitoak edo bestelako edozein organismo edo haren edozein aldaera, biziduntzat zein bizigabetzat jotakoa, eta

ii. Kutsatze metodotzat joko da –baina ez soilik–, zuzenekotzat zein zeharkakotzat, airezko kutsatzea, gorputz jariakinen bidezkoa, edozein gainazal edo objektu solido, likido edo gaseosotiko edo harako transmisioa edo organismoen artekoa, eta

III. Gaixotasunak, substantziak edo agenteak pertsonen osasuna edo ongizatea mehatxa dezakete, edo kalteak ekar diezaiokete, edo ondasunen kalteak, narriadurak, balio galerak, merkaturagarritasun galerak edo erabilera galerak ekar ditzakete.

<u>Galera zibernetikoa baztertzeko klausula (lma 5410)</u>

1. Kontratu honetan jasotako aurkako xedapenen bat alde batera utzi gabe, kanpo geratzen da edozein motatako galera, kalte, erantzukizun, kostu edo gastu, zuzenean edo zeharka, honako hauek eragindakoa edo ahalbidetutakoa, edo honako hauen emaitza dena, edo hauekin lotura duena:
1.1. Sistema informatiko baten funtzionalitatea, erabilgarritasuna edo eragiketa galtzea, aldatzea, kaltetzea edo murriztea, 2. paragrafoko xedapenei lotuta ez badago.
1.2. Edozein motatako datuen edozein galera, funtzionalitate-murrizketa, konponketa, ordezkapen, zaharberritze edo erreprodukzio, datu horien balioari lotutako edozein zenbateko barne.
2. Kontratu honetan jasotako terminoei, baldintzei eta bazterketei lotuta, jatorrizko polizen pean aseguratutako jabetzaren kalte fisikoari eta kalte fisiko horren zuzeneko ondorio den edozein Ondorio Galerari estaldura ematen zaie, kalte fisikoa honako arrisku hauetako edozeinek zuzenean eragiten duenean: suteak, ekaitz elektrikoak edo tximistak, leherketak, aireko inpaktuak edo ibilgailuen talkak, objektuen erorketak, haizeteak, txingor-ekaitzak, tornadoak, zikloiak, urakanak, lurrikarak, erupzio bolkanikoak, tsunamiak, uholdeak, izozteak edo elurraren pisuak eragindako kalteak.
3. Definizioak
3.1. Sistema informatikoa da edozein ordenagailu, hardware, software, komunikazio-sistema, ekipo elektroniko (telefono adimenduna, ordenagailu eramangarria, tableta, gailu eramangarria barne, baina horietara mugatu gabe), zerbitzari, hodei edo mikrokontrolagailu, antzeko edozein sistema edo horien edozein konfigurazio barne, baita sarrera, irteera, datuak biltegiratzeko gailua, sareko gailuak edo backup-instalazioa ere.
3.2. Honako hauek dira datuak: Zenbaketa Sistema batek erabili, eskuratu, prozesatu, transmititu edo artxibatzeko bitarteko batean erregistratzen edo transmititzen den informazioa, egitateak, kontzeptuak, kodeak edo edozein motatako beste edozein informazio.
3.3. Ondorio Galerak esan nahi du negozioak etetea, irabaziak galtzea, irabazi kontingenteak galtzea edo beste edozein galera.

Zehapenak kanpo uztea eta muga

Asegurudunak badaki eta onartzen du aseguratzailea aseguru kontratu honekin lotutako kalteen, ezbeharren, kostuen edo gastuen edozein erantzukizunetik eta/edo betebeharretik libre gelditukо dela prestazioak ordaintzeak aseguratzailea honako hauen arriskupean jartzen badu: Nazio Batuen ebazpenetan zein Europar Batasunak, Erresuma Batuak edo Estatu Batuek ezarritako araudietan, legeetan, zehapen ekonomikoetan edo merkataritzakoetan oinarritutako edonolako zehapenak, debekuak edo mugak.

ESTALDURA BAKOITZAREN BALDINTZA OROKOR ESPEZIFIKOAK

A) KALTE MATERIALEN ESTALDURA

IV. DEFINIZIOAK

5. artikulua.

Estaldura honen ondoreetarako, eta baldintza orokor hauen 2. artikuluko definizioen osagarri gisa, honela ulertuko dira honako hauek:
- KALTE MATERIALAK: Ondasun aseguratuak suntsitzea edo kaltetzea, polizak deskribatutako lekuan.
- BERRIAREN EDO BERRIAREKIN ORDEZTEAREN BALIOA: Ezbeharraren lekuan kaltetutako ondasuna berreraikitzearen, konpontzearen edo ordeztearen kostua, egungo material berriak erabiliz, ondasunaren pareko tamaina, klase eta kalitatezko materialekin, ohiko garraioko kostuak, lizentziak, baimen administratiboak, beharrezko profesionalen ordainsariak eta kostu horretan nahitaez eta legez sartuta dauden bestelako kostu guztiak barne.
- BALIO ERREALA: Ezbeharraren lekuan kaltetutako ondasuna berreraikitzearen, konpontzearen edo ordeztearen kostua, egungo material berriak erabiliz, ondasunaren pareko tamaina, klase eta kalitatezko materialekin, ohiko garraioko kostuak, lizentziak, baimen administratiboak, beharrezko profesionalen ordainsariak eta kostu horretan nahitaez eta legez sartuta dauden bestelako kostu guztiak barne, ezbeharra gertatu aurreko unean aipatutako ondasunaren erabileragatik, antzinatasunagatik, zaharkitzapenagatik eta kontserbazio egoeragatik dagokion balio galera kenduta.

- EDUKIA
    a) MAKINERIA eta ALTZARIAK: Asegurudunaren jabetzakoak diren eta jardueragatik aseguratuta dagoen establezimenduaren esparru barruan dauden ondasun higigarriak, makinak (kaptaziokoak, ekoizpenekoak eta energia elektrikoa transformatzekoak barne), motorrak, erremintak, ordezko piezak, argi aparailuak, hoztekoak edo berokuntzakoak, materiala, bulegoko makinak eta altzariak, merkataritzako altzariak, patroiak, moldeak, ereduak eta matrizeak, ikusmen eta soinu aparailuak, apaingarriak eta objektu artistikoak

(margolanak eta eskulturak barne), eta, oro, har, instalazio mugikorrak eta objektuak, baldintza orokor hauetan jasotako salbuespenak salbuespen.

b) SALGAIAK ETA IZAKINAK: Lehengaien edo gai osagarrien, elaborazio prozesuan dauden ondasunen eta produktu amaituen multzoa, asegurudunaren establezimenduko esparruan daudenak haren jardueragatik eta asegurudunaren jabetzakoak direnak, baldintza orokor hauetan ezarritako salbuespenak salbuespen.

- EDUKITZAILEA: Ondasun higiezinak eta haien eranskinak, instalazio finkoak, zerbitzu galeriak eta energia banaketakoak, itxitura obrak, lur azpiko obrak eta zimenduak, eta asegurudunaren jabetzakoak diren eta establezimendu aseguratuaren esparruaren barruan dauden zerbitzu eta olgeta instalazio oro. Jabetza horizontalaren edo indibisoaren kasuan, barne dago asegurudunari dagokion zatia, jabekidetza ehunekoari jarraituz, establezimendu aseguratua instalatuta dagoen eraikineko zati komunetan. Edukitzailearen zatitzat jotzen dira apaingarriak, esaterako, sabai aizunak; maketak; oihalak, zoruari, hormei edo sabaiei itsatsitako egurrak eta paper margotuak, eta kirol instalazioak, banaketa hesiak eta hormak, eta perimetrokoak, establezimendu aseguratuaren esparruaren barruan daudenak edo hura zedarritzen dutenak.

Baldin eta lehen definitutako edukitzailea asegurudunak errenta araubidean okupatzen badu, baldintza partikularretan berariaz jaso ahalko da edukitzailetzat soilik joko direla hura apaintzeko, hobetzeko eta egokitzeko elementu finkoak eta barne banaketako eta zatiketako elementuak, kristalak, beirak eta ispiluak, behar bezala jarriak, asegurudunak jarri dituenak. Zehaztu egin beharko da zenbateko aseguratua.

- LAPURRETA: Hirugarrenek ondasun aseguratuak legez kontra eskuratzea, jabearen borondatearen aurka, gauzen edo haiek dituzten lokalen aurka indarra dakarten ekintzen bidez edo haiek daramatzaten edo zaintzen dituzten pertsonengan larderia edo indarkeria dakarten ekintzen bitartez.
- EBASKETA: Hirugarrenek ondasun aseguratuak legez kontra eskuratzea, jabearen borondatearen aurka, pertsonengan larderiarik edo indarkeriarik ez dakarten ekintzen bitartez.

V. ONDASUN ASEGURATUAK.

6. artikulua.

Baldin eta baldintza orokorretan berariaz agertzen bada eta kasu bakoitzean zenbateko aseguratua zehaztu bada, ulertuko da bermatuta dagoela bertan deskribatutako arriskuaren EDUKITZAILEA ETA EDUKIA, baldintza orokor hauetan kontzeptu horiek definituta dauden moduan.

Aurkakoa berariaz adostu ezean, estaldura honek ez ditu aseguratuko honako hauek:

a) Merkataritzako objektuak, loteria txartelak, balore higigarriak, tituluak, eskriturak eta, oro har, edonolako dokumentuak.
b) Perlak, harriak eta metal baliotsuak.
c) Orotariko bitxiak eta edergailuak, hau da, urrezko, zilarrezko edo platinozko piezak, perla edo harribitxidunak zein gabeak, norberaren erabilerarako eta/edo apaindurarako.

d) Eskudirua; txekeak, ordaindukoak, kreditu, zordunketa eta erosketa txartelak; aurreordainketako telefono txartelak; erabiltzeko txanpon balioa duten txartelak eta antzeko bestelakoak, posta zigiluak; tinbreak; dokumentu tinbredunak; eta orotariko bildumak, 7. artikuluko b) apartatuak eta 10. artikuluko b), c) eta d) artikuluak aurreikusitako kasuetan izan ezik.
e) Objektu artistikoak edo historikoak, banakako balioak EDUKIrako zenbateko aseguratuaren % 2 gainditzen badu, eta, edozein kasutan ere, 6 000 euro baino gehiagoko unitateko balioa dutenak.
f) Lursaila, ura edo bertan edo haren gainean dagoen beste edozein substantzia, haren egokitzapen eta aldaketa kostuak, soropilak, uztak, zuhaitzak eta zuhaixkak, barruko landare apaingarriak izan ezik.

7. artikulua.

Baldintza partikularretan berariaz aipatu ez arren, EDUKIrako zenbateko aseguratuaren barruan daude honako kontzeptu hauek, soilik Sute, Tximista eta Leherketa Bermeetarako (8. artikulua) eta Berme Hedapenerako (9. artikulua):

a) Establezimendu aseguratuko ENPLEGATUEN JABETZAKO ONDASUNAK, esaterako, tresnak, arropa eta erabilera arrunteko objektuak, bereziki kanpo utzitako klase edo izaerakoak ez badira poliza honen beste baldintza baten arabera, eta establezimenduaren esparruaren barruan badaude.
b) ESKUDIRUA, txekeak, zigiluak, tinbreak eta dokumentu tinbredunak barne, 600 eurora arte.
c) Aseguruaren xede den jarduerarekin zuzeneko lotura duten HIRUGARRENEN JABETZAKO ONDASUNAK, asegurudunaren zaintzapean eta establezimendu aseguratuaren esparruan daudenak, honako baldintza hauek betez gero:
1. Ondasun horien balioa sartuta egotea edukirako zenbateko aseguratuan, ez izatea poliza honen beste baldintza batek berariaz kanpo utzitako klase edo izaera batekoa, eta
2. Asegurudunak erantzukizun zibila izatea jasan duten kalteengatik. Aseguruduna ez bada gertatutako kalteen erantzule, estaldura honek ondasun horiek espezifikoki estaltzen dituzten gainerako aseguruen gehiegizkoagatik edo gutxiegizkoagatik aplikatuko da.

d) ALDI BATERAKO MUGITUTAKO ONDASUNAK, asegurudunaren jabetzakoak direnak eta poliza honek bermatutakoak, ibilgailuak kanpo, asegurudunak Espainiako lurraldeko beste norabait mugitzen baditu konpontzeko, entretenimendurako edo erakusteko. Konpainiak ez du bere gain hartuko lekualdatzean ondasunek jasandako kalteen ordaina.

Konpainiaren erantzukizunak inola ere ez du gainditukо ezbeharreko 60 000 euroko zenbatekoa, eta ez da hedatuko hirurogei egunetik gora, ondasunak lokal aseguratuetatik irteten diren egunetik zenbatzen hasita.
KANPO gelditzen dira beste poliza batek aseguratutako ondasunak, honetan berariaz kanpo utzitakoak eta biltegiratze arrunterako, zuzeneko salmentarako, banaketarako edo ematerako, fabrikazioko edozein fasetarako, aldatzeko, handitzeko, egokitzeko edo hobetzeko lekualdatuak lokal aseguratuetatik.

e) Establezimendu aseguratuaren parte izanik edo, hala badagokio eta c) apartatuan jasotako baldintzetan, hirugarrenen jabetzakoak izanik, establezimendu aseguratuaren esparru barruan eta EGURATS GORRIAN dauden ONDASUNAK eta baldin eta ez badago establezimendutik 150 metro baino gehiago eta poliza honen beste edozein baldintzak ez baditu ondasun horiek berariaz kanpo utzi.
Nolanahi ere, berme hori ez da aplikatuko ondasunak beste edozein aseguru kontratuk aseguratuta badaude.

VI. BERMEAK

8. artikulua. SUTEA, TXIMISTA ETA LEHERKETA

Poliza honen baldintza partikularretan berme hau berariaz sartuta dagoela adierazten bada, kasu bakoitzean EDUKIrako eta EDUKITZAILErako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin, honako hauen ondorioz ondasun aseguratuek jasandako zuzeneko kalte materialak:

a) SUTEA, edozein kausarengatik gertatzen dela ere.
b) TXIMISTA BAT ZUZENEAN ERORTZEA, sutea ez badakar ere.
c) Edonolako leherketa edo inplosioa, salbu eta presio entseguengatik, energia nuklearragatik edo lehergaiak erabiltzeagatik, manipulatzeagatik edo biltegiratzeagatik gertatu bada.
Ez dira kontzeptu honen barruan egongo honako fenomeno fisiko hauek: arku elektrikoa; izozteagatik, indar zentrifugoagatik edo ariete kolpeagatik, orotariko dilatazioengatik edo soinu uhinengatiko danbatekoengatik ontziak edo hodiak haustea; eta segurtasuneko balbulak edo diskoak, hauste diafragmak edo tapoi fusibleak haustea

Berme honetatik KANPO daude:
a) Makineria elektrikoak, aparailu elektrikoek edo elektronikoek, haien osagarriek edo instalazioek eta elektrizitatea eroateko lineek jasandako kalteak, korronte elektriko anormalengatik, zirkuitulaburrengatik, erretzeagatik edo haren funtzionamenduaren berezko kausengatik gertatutakoak, tximista bat erori delako badira ere.
b) Ondasun aseguratuek beren hartziduragatik edo bat-batean berotzeagatik jasandako kalteak.
c) Ondasun aseguratuek jasandako kalteak, berogailuen, aire girotukoen, argiteriakoen, sutondoen beroaren kontaktu zuzenagatik zein zeharkakoagatik, eta erretzaileen edo etxeko istripuengatik gertatutakoak, objektu aseguratuak modu isolatuak sutara erori badira, non eta ez den sute batengatik gertatu edo adierazitako kausen ondorioz gertatzen.

9. artikulua. BERMEEN HEDAPENA

Poliza honen baldintza partikularretan berme hau berariaz sartuta dagoela adierazten bada, kasu bakoitzean EDUKIrako eta EDUKITZAILErako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin, honako hauen ondorioz ondasun aseguratuek jasandako zuzeneko kalte materialak:

a) BANDALISMO EKINTZAK edo ASMO TXARREKO EKINTZAK, hau da, borondatezko jarduketak, ondasun aseguratuetan kalte egiteko asmokoak, asegurudunaz, aseguru-hartzaileaz, haien ahaideez eta haien mendeko pertsonez eta bizikideez edo establezimendua

zuzenbidean baliozkoa den edozein tituluren bitartez (errentaria, usufruktuduna eta abar) okupatzen dutenez besteko norbaitek eginak.
Kanpo daude pintaketak, inskripzioak, itsatsitako afixak eta antzekoak, establezimendu aseguratuaren fatxadan egindakoak, eta kristalen, beiren, ispiluen, errotuluen, iragarkiek eta olanen kalteak.
b) ISTILU EKINTZAK, bileretan eta manifestazioetan gertatuak, indarreko legediari jarraituz, baita LEGEZKO GREBETAN gertatutakoak ere, salbu eta jarduketa horiek altxamendu edo herri istilutzat jotzen badira.
Kanpo daude lana osorik edo partez nahita eteteagatik edo motel egiteagatik sortutako kalteak, baita edozein fabrikazio prozesu atzeratzeagatik, eteteagatik edo mozteagatik gertatutakoak ere.
Halaber, kanpo daude pintaketak, inskripzioak, itsatsitako afixak eta antzekoak, establezimendu aseguratuaren fatxadan egindakoak, eta kristalen, beiren, ispiluen, errotuluen, iragarkiek eta olanen kalteak.
c) Honako FENOMENO ATMOSFERIKO hauek: HAIZEA eta hark mugitutako OBJEKTUEN KOLPEAK, EURIA, HARRIA edo KAZKABARRA eta ELURRA, baldin eta metro koadroko eta orduko 40 litro baino gehiagoko prezipitazioa badago EURIAren kasuan, eta HAIZEArenean, 96 km/h baino abiadura handiagoak; eta edozein intentsitate HARRIrako eta ELURrerako.
Fenomeno horien magnitudea eta intentsitatea Meteorologia Institutu Nazional hurbilenaren ziurtagiriaren bidez frogatu beharko dira. Teknikoki ezinezkoa bada, arrisku aseguratua haran batean dagoelako edo behatokiak berak kalteak jasan dituelako, egiazko magnitudea eta intentsitatea frogatzeko aintzat hartuko dira kaltearen egiazko irismenaren adituen estimazioak, edo zuzenbidean onartutako beste edozein froga bitarteko.
Kanpo daude itoginek, filtrazioek eta hezetasunek egindako kalteak.
d) Edukitzaile aseguratuaren parte diren edo eduki aseguratuek dituzten hoditeriak, aparailuak edo tangak lehertu, apurtu, gainezka egin edo buxatu izanagatik darion URA, baita balbulak, giltzak edo kanilak itxi ez izanagatik dariona ere, eta hirugarrenen jabetzetatik datorrena ere bai, alboz alboko lokalen eta jabetza horizontal edo indibisoaren kasuan.

Baldin eta kalteen arrazoia establezimendu aseguratuko instalazio pribatiboetako filtrazioak badira, eta haren edukitzailea aseguratuta badago, konpainiak ordaindu egingo ditu matxura topatzeko egin beharreko gastuak ere, eta kaltetutako hoditerien zatiak konpontzekoak edo ordeztekoak ere bai, gehienez 6.000 euro, ezbeharreko.

Kanpo daude honako hauek:

- Hodien korrosioagatiko edo haien barruan mailaka zikinkeria sedimentatzearen ondoriozko matxurak topatzeko gastuak, eta erradiadoreak eta berokuntza edo hozketako aparailuak, aparailu sanitarioak, tangak, kanilak eta ixteko giltzak konpontzekoak.
- Orotariko zeharkako kalteak eta ondoriozkoak, baita ezbeharrak kaltetu gabeko materialak ordeztekoak ere, eta ordezte hori ezbeharrak ukitutakoen ezaugarri bereko materialak ez egotearen ondoriozkoak ere bai.
- Fabrikazioko edo prozesuko makineriatik datorren urak egindako kalteak.
- Lur azpiko tangetatik, hobi septikoetatik, estoldetatik, gandoletatik eta haien kanalizazioetatik datozen urek egindako kalteak.

- UHOLDEAK, irtenbide naturalik gabeko lakuen, kanalen, ubideen eta bestelako ur-lasterren edo gizakiak egindako gainazaleko ibilguen, estolden, kolektoreen eta lur azpiko bestelako

ibilguen gainezkatzeak edo desbideratzeak eragindakoak, baldin eta uholdea ez bada Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak babestutako arriskuei dagozkien egitateen edo fenomenoen ondorioz gertatu.
Kanpo daude presek edo euste dikeek gainezka egitearen edo apurtzearen ondoriozko kalte-galerak, baita kaltea ekarri duten instalazioak kokatzeko, konpontzeko edo ordeztekoak ere.
f) KEA, bat-batean eta ustekabean sortua.
g) AIREONTZIEN ERORKETA edo TALKA, edo haietatik eroritako objektuak.
h) Aireontziek sortutako SOINU UHINAK.
i) LURREKO IBILGAILUEN TALKA, edo haiek garraiatutako salgaienak, hauek salbu: kristaletan, beiretan, errotuluetan, iragarkietan eta olanetan egindako kalteak, asegurudunaren edo establezimendua okupatzen duenaren edo haren mendeko pertsonen jabetzako edo kontrolpeko ibilgailuek egindakoak, eta ibilgailuek beraiek jasandako kalteak.
j) SUTEAK ITZALTZEKO INSTALAZIOEN HUTSEGITEA, uraren edo suteak itzaltzeko sisteman erabilitako bestelako edozein substantziaren nahi gabeko isuri edo jarioren bat dakarrena, sistemaren estankotasun ezagatik, hautsi izanagatik, ihesen bat izateagatik edo huts egin izanagatik. Ulertuko da «itzaltzeko sistema» terminoaren barruan daudela uraren tangak eta hoditeriak, ur harguneak, sute ahoak, balbulak eta, oro har, soilik sua itzaltzeko erabiltzen den edozein instalazio edo ekipamendu, edo sua itzaltzeko eta beste zerbaitetarako batera erabiltzen dena. Kontzeptu honetatik kanpo egongo da lokal aseguratuetatik kanpo kokatutako lur azpiko edozein hoditeria edo instalazio, uraren banaketa sistema publikokoa, baita urari presa batez eusten zaion edozein urtegi ere.
Kanpo daude «itzaltze sistemak» berak jasandako kalteak, baita likido galerak eta eroritako substantzia ere.
k) ELEKTRIZITATEA, energia elektrikoa ekoizteko, banatzeko eta/edo transformatzeko makinerian (sorgailuak; transformadoreak; aginte eta kontrol mahaiak; makinetakoak, haien instalazioetakoak eta osagarrietakoak izan ezik) korronte anormalengatik, zirkuitulaburrengatik, erretzeagatik edo bestelako perturbazio elektrikoengatik gertatutakoak, tximista bat erori delako badira ere.
Berme honek kaltea ordain diezaiokeen ezbehar orotarako gehienez ere lehen arriskuan 60.000 euroko kalte ordain muga ezarri da.

Kanpo daude honako hauek:
Energia elektrikoa sortzen duten edo hartaz elikatzen diren gainerako makineriak, aparailuek eta motorrek jasandako kalteak, eta haien funtzionamenduagatik, erabileragatik edo higatze arruntagatik, mailakako balio galeragatik, berezko akatsagatik edo ondasunen kontserbazio okerragatik gertatutakoak. Bermeen hedapen honetan jasotako arrisku orogatik kalte-ordainak jaso ditzakeen edozein ezbeharretan, 300 euroko frankizia aplikatuko da.

KANPO gelditzen dira honako hauek egindako kalteak:
a) Lapurreta eta ebasketa.
b) Luzaroko hezetasuna, kondentsazioa edo kapilaritatea, baita asegurudunari egotz dakiokeen mantentze lanen edo konponketen falta.
c) Ura, elurra, hondarra edo hautsa, itxi gabe gelditutako edo gaizki itxitako ateetatik, leihoetatik edo irekiguneetatik sartutakoa; orotariko herdoiltzeak; izotzagatik tangek, aparailuek, hodiek eta haien osagarriek jasandako kalteak, baita matxurak topatzeko eta konpontzeko gastuak ere.

d) Zuzenean lurrean edo lurretik 10 zentimetrora baino gutxiagora dauden salgaietan eta izakinetan urak egindakoak, salbu eta kalteak berdin gertatu balira hori baino garaiago egonez gero, edo salgai eta izakin kaltetuak ezin badira paleten, apalategien edo antzekoen gainean gorde, haien ezaugarri bereziak tarteko. Ezaugarri hori zehazteko, aintzat hartuko dira adituen oharrak eta horiek kontserbatzeko eta gordetzeko arauak edo araudiak, halakorik badago.
e) Establezimendu aseguratuan aire zabalean gordetako edukiari eragiten dion naturako edozein fenomeno, baita material malguz, olanaz edo plastikoz babestuta badago ere, eta eraikuntza irekien barruan badago ere, kanpoan instalatzeko edo funtzionatzeko diseinatutako ondasunak (motordun ibilgailuak izan ezik) salbu.
f) Lur jalkitzeak eta mugimenduak (hondoratzea, luizia edo lur jausia), nahiz eta hurbileko zein urruneko kausa berme haietan estalitako arriskuren bat bada.

10. artikulua. LAPURRETA.

Polizaren baldintza orokorretan berariaz adierazten bada berme hau jasota dagoela, konpainiak kalte ordainak eman beharko ditu ondasun aseguratuen lapurretagatiko kalteengatik, LAPURRETA gertatu bada baldintza orokorren 5. artikuluan definitutako moduan, baita ondasun aseguratuei EGITATE HORREN ONDORIOZ edo horretarako SAIALDIAGATIK egindako KALTE MATERIALENGATIK ere, honako baldintza hauen arabera:

a) EDUKIAREN LAPURRETA, zuzenean lotura duena jarduera aseguratuarekin, eta establezimendu aseguratuaren eraikinaren barruan badago; edo kanpoan baina establezimendu aseguratuaren esparruan, hesituta badago eta ondasunak ainguratuta edo finkatuta badaude; hirugarrenen jabetzako ondasunak barne, enplegatuenak salbu, baldintza orokorren 7. artikuluko c) apartatuan adierazitako baldintzei jarraituz. Kanpo daude eskudirua, txekeak, ordaindukoak, dokumentu tinbredunak, posta zigiluak, Estatuko tinbreak eta orotariko bildumak.
b) LAPURRETA, LEHEN ARRISKUAN, ESKUDIRUARENA, TXEKEENA, ORDAINDUKOENA, DOKUMENTU TINBREDUNENA, POSTA ZIGILUENA, ESTATUKO TINBREENA ETA OROTARIKO BILDUMENA, establezimendu aseguratuaren jabetzakoak badira, gehienez ere 6 000 eurora arte ezbeharreko, baldin eta establezimendu aseguratuko eraikinaren barruan badaude, 100 kg baino gehiagoko edo horman sartutako GUTXA GOTORREAN, segurtasun sarrailapean eta irekitzea blokeatzeko konbinaziopean.
c) LAPURRETAN, LEHEN ARRISKUAN, ESKUDIRUARENA ETA TXEKEENA, asegurudunaren jabetzakoak badira, gehienez ere 600 eurora arte ezbeharreko, establezimendu aseguratuaren eraikinaren barruan badaude eta ez kutxa gotorrean.
d) LAPURRETA, LEHEN ARRISKUAN, ESKUDIRUARENA ETA TXEKEENA, gehienez ere 6 000 eurora arte ezbeharreko, zuzenean garraiatzen ari denean establezimendu aseguratuaren mugatik banku instituzio batera, edo alderantziz, baldin eta establezimendu aseguratuaren nominan jasotako pertsona batek edo batzuek egiten badute, zeregin hori agindu zaielako, eta egitatea goizeko zortzietatik arratsaldeko bederatzietara artean gertatzen bada, eta bete egin bada funtsak garraiatzeari buruzko indarreko lege araudia.
e) Zuzeneko KALTE MATERIALAK, LEHEN ARRISKUAN, EDUKITZAILEAN egindakoak, aseguratuta ez bada ere, LAPURRETAren edo SAIALDIAren ondoriozkoak, gehienez ere 6 000 euro ezbeharreko.

Berme honetatik KANPO daude:

a) Eraikinen kanpoan edo eraikuntza irekietan dauden ondasun aseguratuak, salbu eta ainguratuta edo finkatuta badaude establezimendu aseguruaren esparruaren barruan, baldin

eta hesituta badago, edo polizan deskribatutako lekutik kanpo kokatutakoak edo garraiatutakoan, konpainiak berariaz adostutako bestelako inguruabarren bat ez bada.
b) Galtze soilengatik gertatutako kalteak, giltzak desagertu ondoren edo ezbehar bat gertatu eta gero dagozkion babes neurriak ez hartzeagatik gertatutakoak, eta edozein motatako ebasketagatikoak.
c) Aseguru-hartzailearen edo asegurudunaren mendeko pertsonek edo harekin lotutakoek egindako lapurretak.
d) Asegurudunaren edo aseguru-hartzailearen, edo haien mendekoen edo haien bizikide direnen, zabarkeria larriaren ondorioz gertatutako lapurretak, aurkakoa berariaz adosten ez bada.

11. artikulua. KRISTALAK, BEIRAK, ISPILUAK ETA ERROTULUAK APURTZEA

Baldin eta baldintza partikularretan berariaz adierazten bada berme hori sartuta dagoela, konpainiak kalte ordainak emango ditu, lehen arriskuan, behar bezala instalatutako KRISTALEK, BEIREK, ISPILUEK ETA ERROTULUEK, EDUKITZAILEAREN parte finkoa direnek, jasandako APURKETAko kalte materialengatik, ipintzeak ekarritako gastuak barne.
Berme honetatik KANPO daude:
a) Gainazalen edo ispilu akaberen urratuak, pitzadurak, zartatuak eta gainerako narriadurak.
b) Establezimendu aseguratuan instalazioagatik, lekualdatzeagatik edo obrak egiteagatik gertatutako apurketak.
c) Instalazio edo fabrikazio akatsen edo okerren ondoriozko kalteak.

12. artikulua. BESTELAKO GALERAK.

Aurreko lau artikuluek estalitako bermeetan jasotako ezbehar baten ondorioz badira, honako hauengatik ere emango dira kalte ordainak:
a) SALBAMENDU gastuak, 51.a) artikuluan jasotakoak barne, eta eta ondasun aseguratuen HONDAKINAK KENTZEKOAK, ERAISTEKOAK barne. Ezbeharrak egindako kaltearen neurri berean ordainduko dira horiek, kasuan-kasuan EDUKITZAILERAKO edo EDUKIRAKO arrisku guztietarako aseguratutako zenbatekoaren % 10eko mugara arte. Nolanahi ere, kanpo daude honako hauek kentzeagatiko edo eraisteagatiko gastuak:
a.1) Eraikinaren zimenduak, non eta ez den horiek konpontzeko edo berreraikitzeko.
a.2) Edozein eraikin edo eraikin zati, autoritate eskudunek eraisteko agindu badute.
Inola ere ez ditu bermatuko poliza honek eraikin aseguratuen edozein zati kaltetu gaberen eraiste kostuak, eraikinen eraikuntzari, konponketari edo mantentzeari buruzko edozein ordenantza edo legeren ondoriozkoak.
b) Ondasun aseguratuetan AUTORITATEAK EDO ASEGURUDUNAK ezbeharra saihesteko, eteteko edo txikitzeko hartutako beharrezko NEURRIAK, neurri horiek aplikatzeak ekarritako gastuak salbu, zeinak artikulu honen a) apartatuan arautu diren.
Asegurudunari ONDASUN ASEGURATUAK GARRAIATZEAK edo ezbeharretik libratzeko hartutako bestelako edozein neurrik ekarritako GASTUAK.
d) Ezbeharragatik DESAGERTUTAKO OBJEKTUAK, baldin eta asegurudunak frogatzen badu lehendik bazeudela.

e) Objektu salbatuek jasandako KALTEAK, aurreko apartatuetan deskribatutako inguruabarren ondoriozkoak.
f) SUA ITZALTZEKO GASTUAK, hau da, SUHILTZAILEEN LAGUNTZAREN udal tasaren kostua eta ezbeharragatik erabilitako suteen aurkako EKIPAMENDUAK BETETZEAREN KOSTUA, gehienez ere 30 000 euro ezbeharreko.
Ez da itzaltzeko gastutzat joko suteen aurkako ekipamenduak betetzea, probak egiteko, langileen prestakuntzarako edo ekipamendu horien aldizkako azterketarako erabili badira.
g) DOKUMENTUAK, artxiboak, tituluak, baloreak, film errebelatuak eta euskarri magnetikoetan jasotako datuak berreskuratze eta berrinprimatze kostuak, baldin eta EDUKIA aseguratuta badago, gehienez ere 18 000 eurora arte ezbehar bakoitzeko.
h) Ezbeharraren ondorioz kaltetutako PLANOAK, PATROIAK, DISEINUAK, MOLDEAK, EREDUAK ETA MATRIZEAK BERREZARTZEKO, LORTZEKO ETA TRANSKRIBATZEKO kostuak, baldin eta erabilgarriak badira asegurudunarentzat, berrezartzea gehienez ere ezbeharra gertatu eta urtebetera gertatzen bada eta EDUKIA aseguratuta badago, gehienez ere 18 000 eurora arte ezbehar bakoitzeko.
i) Asegurudunak ordaindu beharreko ADITUEN GASTUAK eta ORDAINSARIAK, ingeniariak, auditoreak eta tasazio eragiketak egiteko gainerako adituak kontratatzekoak, gehienez ere kalte ordainaren zenbatekoaren % 3ra arte, eta, edonola ere, gehienez 18 000 eurora arte ezbeharreko. Negozioa etetearen estaldura kontratatu bada, eta ezbeharrak estaldura horren konturako galerak ere ekartzen baditu, aurreko muga kalte ordainaren zenbateko bateratuaren % 3koa izango da, eta gehienez ere 30 000 eurokoa.
j) Establezimendu aseguratua ALDI BATERAKO ETA NAHITAEZ HUSTU BEHAR IZATEAREN GASTUAK, erabilezin gelditzen bada, ezbeharrak egindako kalteak konpontzeko behar den tartean, gehienez ere urtebetez.
Gastu horiek eduki aseguratuaren garraioa hartuko dute soilik, eta hura gordetzeko lokalaren alokairua, gehienez ere 30.000 eurora arte ezbehar bakoitzeko.

Artikulu honetan jasotako gastuen eta/edo kalteen zenbatekoaren eta kalte ordain nagusiaren baturak ezingo du gainditu edukitzailearentzat eta/edo edukiarentzat aseguratutako zenbatekoaren % 105, dagokionaren arabera.

VII. SALBUESPENAK.

13. artikulua.

Nolanahi ere, kalte materialen estalduratik salbuetsita daude honako hauek:
a) Asegurudunaren doloa edo erru larria tartean dela sortutako kalteak.
b) Zeharkako orotariko galerak eta ondoriozko kalteak, polizak estalitako kalte batetik eratorrita ere.
c) Ondasun aseguratuetan egindako kalteak, establezimendu aseguratua babesgabe, abandonatuta, zaintzarik gabe edo geldiarazita badago hirurogei egunez baino gehiagoz segidan.
d) Energia elektrikoaren, erregaiaren, uraren, lurrunaren edo hozgarrien hornidura faltak ekarritako kalteak eta galerak, edozein arrazoigatik gertatuta ere, non eta egitate horietakoren batek ez badu polizaren garantiek estalitako ondasun aseguratuetan kalterik ekartzen.
e) Ondasun aseguratuen berezko akatsagatik edo hutsagatik sortutako kalteak edo galerak.

VIII. KALTEEN BALIOESPENA.

14. artikulua.

1. Kalteak beti honako arau hauen arabera balioetsiko dira:

a) EDUKITZAILEA; bertan sartuta egongo da zimenduen zati proportzionala, baina ez orubearen balioa. Doietsi egingo da, egungo material berriekin, kaltetuen antzeko kalitate eta gaitasuna dutenekin, BERRERAIKITZEKO EDO KONPONTZEKO KOSTUAREN arabera, eta bertan sartuta egongo dira PROFESIONALEN ORDAINSARIAK eta berreraikitzeko beharrezko BAIMENAK ETA LIZENTZIAK eskuratzearen kostuak, ezbeharraren datakoak, alde batera utzita erabileragatiko, antzinatasunagatiko, zaharkitzapenagatiko eta kontserbazio egoeragatiko balio galera, honako arau hauei jarraituz:

a.1) Ondasun kaltetuen balioespenak ez du gaindituko berreraikitze kostuaren eta konpontze kostuaren arteko zenbatekorik txikiena.
Nolanahi ere, konpainiak ordaindu egingo du kostuaren igoera, ondasun kaltetuak berreraikitzeari edo konpontzeari eragiten dion edo hori arautzen duen edozein motatako antolamenduk edo legek ezarria.

a.2) Berreraikitzearen edo berria konpontzearen balioaren eta balio errealaren arteko diferentziagatiko kalte ordaina bidezkoa izango da soilik ondasun kaltetua erabilgarria bada asegurudunarentzat, eta ondasun kaltetuak denbora tarte arrazoizkoan berreraikitzen edo konpontzen badira, gehienez ere, edozein kasutan, bi urtean, ezbeharraren datatik hasita. Osterantzean, konpainiak soilik ordainduko du ondasun kaltetuen egiazko balioa, kontuan hartuta haren erabileragatik, antzinatasunagatik, zaharkitzapenagatik eta kontserbazio egoeragatik dagokion kenkaria.

a.3) Asegurudunak ondasun kaltetuen balio errealaren eta halako berrien balioaren (berreraikitzea edo konpontzea) balioaren arteko diferentziagatik jaso beharreko kalte ordainak ezingo du izan berrien balioaren % 50 baino gehiago, eta ehuneko horretatik gorakoa beti joango da asegurudunaren kontura.

BEIRAK, KRISTALAK, ISPILUAK ETA ERROTULUAK berrezartzearen balioagatik balioetsiko dira, gehi instalazio gastuak.

b) EDUKIA:

b.1) SALGAIAK ETA IZAKINAK: Fabrikatzaileen salgaiak eta izakinak, fabrikazioan zein biltegiratzean, lehengaien balioaren eta ezbeharraren unean zuten fabrikazio mailara heltzeko jasandako gastuen baturagatik balioetsiko dira, edo salmenta balioagatik, baxuagoa bada.
Fabrikatzaileenak ez diren salgaiak edo izakinak ezbeharraren aurreko unean merkatuan zuten kostuaren balioagatik balioetsiko dira.

b. 2) MAKINERIA eta ALTZARIAK: Makineria eta altzariak balioetsiko dira ezbeharraren unean merkatuan berriek duten balioaren arabera, muntaketaren eta desmuntaketaren, garraio arruntaren eta, halakorik badago, aduanen gastuak barne, erabileragatiko, antzinatasunagatiko, zaharkitzapenagatiko eta kontserbazio egoeragatiko balio galera kenduta.

Baldin eta merkatuan ez badago horrelako objekturik, antzeko ezaugarri eta errendimenduak dituzten beste batzuk hartuko dira balioespen horretarako oinarri gisa. *Margolanak, estatuak eta objektu arraroak, artistikoak, historikoak eta preziatuak ezbeharraren unean merkatuan duten ondare balioaren eta egiazko balioaren arabera, baldin eta ez bada balio jakin bat adostu.*

Film errebelatuak, artxiboak, planoak, dokumentuak, erregistroak, tituluak eta baloreak eta prozedura elektronikoen eta elektromekanikoen bidez datuak biltegiratzeko sistemak eta bitartekoak tasatzeko materialak «garbi» duten hasierako kostuaren arabera tasatuko dira, edukia transkribatzeko kostua kanpo.

Moldeak, ereduak eta matrizeak haien balio errealaren arabera tasatuko dira, hau da, ezbeharraren unean berrezartzearen kostuaren arabera, erabileragatik, antzinatasunagatik eta zaharkitzapenagatik dagokien kenkaria aplikatuta, baldin eta ez badu konpontzeko kostua gainditzen.

Motordun ibilgailuak, nekazaritzako makineria edo eraikuntzakoa eta herri lanetakoa, haien balio errealaren arabera tasatuko dira, salbu eta jarduera aseguratuaren xede diren salgaitzat eta izakintzat jotzen badira, hau da, ezbeharraren unean berriek zuten balioaren arabera, erabileragatik, antzinatasunagatik eta zaharkitzapenagatik dagokien kenkaria aplikatuta, baldin eta ez badu konpontzeko kostua gainditzen.

2. Kalte ordaina, baldintza orokorren 47. eta 52. artikuluetan zehaztutakoa kontuan hartuta, honako arau hauen arabera zehaztuko da:

a) EDUKITZAILEA: Adiskidantzazko edo adituen balioespenetik ondorioztatzen bada edukitzaileak ezbeharraren unean zuen berriaren balioa kontzeptu horrengatik baldintza partikularretan aseguratutako zenbatekoaren berdina edo txikiagoa dela, aintzat hartuta artikulu honen beraren 1. puntuko a) apartatuan xedatutako muga, asegurudunak eskubidea izango du zorrozki eta osorik jasotzeko justifikatutako egiazko galeraren kalte ordaina; handiagoa bada, aseguruduna bera bere aseguratzaile izango da gehiegizko zatiagatik, eta, hortaz, kaltearen zati proportzionala jasango du.

b) EDUKIA:

b.1) SALGAIAK ETA IZAKINAK: Adiskidantzazko edo adituen balioespenetik ondorioztatzen bada salgaien eta izakinen balio erreala ezbeharraren unean baldintza partikularretan zehaztutako batezbesteko balioaren berdina edo txikiagoa dela, aintzat hartuta azken hamabi hilabeteetan egiaz izandako batezbesteko balioa kontuan hartuta –horretarako, izakin gehien zegoen egunekoak hartuko dira aintzat–, asegurudunak eskubidea izango du zorrozki eta osorik jasotzeko justifikatutako egiazko galeraren kalte ordaina; handiagoa bada, aseguruduna bera bere aseguratzaile izango da gehiegizko zatiagatik eta, hortaz, jasan egingo du batezbesteko balio aseguratuaren balioaren eta azken hamabi hilabeteetan egiaz izandako batezbesteko balio errealaren arteko proportzio erregela aplikatzetik lortutako kaltearen ehunekoa.

Konpainiak inola ere ez du betebeharrik izango asegurudunari polizaren baldintza partikularretan kontzeptu horregatik zehaztutako gehienezko kapitala baino zenbateko handiagoa ordaintzeko.

b. 2) MAKINERIA eta ALTZARIAK: Adiskidantzazko edo adituen balioespenetik ondorioztatzen bada makineriak eta altzariak ezbeharraren unean zuen balio erreala kontzeptu horrengatik baldintza partikularretan aseguratutako zenbatekoaren berdina edo txikiagoa dela, asegurudunak eskubidea izango du zorrozki eta osorik eta jasotzeko

justifikatutako egiazko galeraren kalte ordaina; handiagoa bada, aseguruduna bera bere aseguratzaile izango da gehiegizko zatiagatik, eta, hortaz, kaltearen zati proportzionala jasango du.
Konpainiak inola ere ez du betebeharrik izango edukitzailearen, salgaien eta izakinen, makineriaren eta altzarien kontzeptu bakoitzagatik aseguratutako zenbatekoa eta tasazioagatik dagozkion gastuak baino gehiago ordaintzeko, edozein dela ere ezbehar berak ukitutako bermeen kopurua.

3. ZENBATEKO ASEGURATUEN KONPENTSAZIOA: Baldin eta soilik sutearen, tximistaren, leherketaren eta bermeen hedapenaren bermeei (baldintza orokorren 8. eta 9. artikuluak) eragiten dien ezbehar bat gertatzean gehiegizko zenbatekoa badago aseguratuta EDUKITZAILEan edo MAKINERIA eta ALTZARIETAN, berariaz salgaiak eta izakinak kanpo utzita, gehiegizko zati hori aplikatu ahalko zaio aseguru nahikoa ez duen kontzeptuari, baldin eta aipatutako bermeetarako primaren tasa zenbateko aseguratuen banaketa berri horri aplikatzearen ondoriozko prima ez bada abian dagoen aseguru urtean berme horietarako ordaindutako prima baino altuagoa. Hala bada, kaltea ordaina emango da zenbateko aseguratuak banaketa berrian kontzeptu bakoitzerako interes aseguratua estaltzen duen heinean.
Zenbateko aseguratuen banaketa berria ezarri ondoren, ezbeharra normal likidatuko da, artikulu honen aurreko apartatuetan ezarritakoari jarraituz.
Konpentsazio hori aplikagarria izango da soilik arrisku egoera berean dauden ondasunetarako.

B) EKIPAMENDU ELEKTRONIKOEN ESTALDURA

XV. ONDASUN ASEGURATUAK.

15. artikulua.

Bermatuta dago baldintza partikularretan zehaztutako ekipamendu elektronikoa.

Estaldura honen ondoreetarako, ekipamendu elektronikotzat joko da hau: gailu elektronikoetan oinarritutako sistema eta funtzionamendua duen mekanismo edo mekanismo multzo oro, aldi berean zuzenean edo zeharka bestelako gailu edo makina elektriko edo mekanikoak abiaraz ditzaketenak.

XVI. ESTALITAKO ARRISKUAK

16. artikulua.

Estaldura horrengatik, poliza honek ezarritako mugen barruan, konpainiak nahitaez eman beharko du berariaz kanpo utzi ez den edozein istripuzko kausagatik ondasun aseguratuek jasandako kalteen ordaina, kausa hori erabili bitartean, kontserbazio lanetan edo establezimendu aseguruaren barruan garraiatu bitartean gertatzen bada.
Datuak prozesatzeko ekipamenduak badira, datuen euskarri magnetikoak, adibidez, kanpo diskoak, disketeak, kaseteak, zinta edo fitxa magnetikoak eta zulatzaileak ere bermatuta egongo dira, establezimendu aseguratuan badaude.
Estaldura honek indarra izateko, baldintza orokor hauen 8., 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako kalte materialen arriskuetan izan ezik, ezinbestekoa izango da asegurudunak poliza indarrean dagoen bitartean indarrean izatea ondasun aseguratuen fabrikatzailearekiko edo hornitzailearekiko mantentze lanen kontratu bat, zeinak hura behartuko duen horiek zaintzera eta erregularki mantentzera.

XVII. SALBUESPENAK.

17. artikulua.

Konpainiak ez du honako hauengatik kalte ordainik emango:

a) Matxurak edo eragiketa akatsak ikertzeko edo deuseztatzeko egindako gastuak, non eta ez diren kalte ordainak jaso beharreko kalteengatik sortuak.
b) Edonolako kalte edo galera ondoriozkoak.
c) Euskarri magnetikoetan jasotako datuak berreskuratzeko eta berrinprimatzeko kostuak.
d) Ondasun aseguratuen higatze naturalak sortutako kalteak edo galerak, mailakako edo apurkako ekintza atmosferikoek, kimikoek, termikoek edo mekanikoek edo berezko akatsagatik edo hutsagatik gertatuak.
e) Esperimentuek, entseguek edo probek egindako kalteak edo galerak, horietan ekipamendu aseguratuak nahita normala baino esfortzu handiagoa egin badu.
f) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornidura akatsengatiko kalteak edo galerak.
g) Euskarri informatikoetan jasotako programa informatikoetan edo datuetan izandako kalteak, horien edozein aldakuntza barne, haien jatorrizko egitura ezabatzearen, suntsitzearen edo aldatzearen ondoriozkoak, eta jarduera etetearen ondoriozko galerak, edozein dela ere horren arrazoia, salbu eta konpainiak polizan estalitako kalte baten ondorio zuzenak badira. Azken kasu horretan, adostutako moduan eta adostutako mugekin bermatuko dira. Halaber, kanpo egongo dira barne edo kanpo sistemen funtzionamendu txarretik etorritako kalteak, programen edo datu baseen eskuragarritasun faltatik, erabili ezinetik edo sartu ezinetik sortuak.

18. artikulua. Frankizia.

Ez dago.

XVIII. ZENBATEKO ASEGURATUA.

19. artikulua.

Objektu bakoitzerako zenbateko aseguratua unean-unean berria ezartzeko balioa izango da; hau da, klase eta gaitasun berekoa edo parekoa duen berri batek balio duena, garraioaren, muntaketaren eta aduana eskubideen gastu arruntak barne, halakorik badago.

20. artikulua.

Ezbeharraren unean objektu bakoitzerako zenbateko aseguratua txikiagoa bada berria ezartzeko balioa baino, aurreko artikuluan definitu den moduan, aseguruduna bera bere aseguratzaile izango da gehiegizko zatiagatik, eta, beraz, kaltearen zati proportzionala jasango du.

XIX. EZBEHARRAK

21. artikulua.

Baldintza orokorren 51. artikuluan zehaztutako arau orokorrez gain, aseguru-hartzaileak edo asegurudunak nahitaez eten beharko dute ekipamendu kaltetuaren edozein elementuren funtzionamendua, harik eta konpainia ados egoteko moduan konpondu den arte.

22. artikulua. KALTE ORDAINAREN OINARRIAK.

Baldintza orokorren «XXVI. EZBEHARRAK» apartatuan zehaztutakoaz gain, aintzat hartuko da honako hau:

1. Kalteak honako arau hauei jarraituz balioetsiko dira:
   a) Ondasun aseguratuek jasandako kalteak edo galerak konpontzeko modukoak badira, konpainiak objektu kaltetua ezbeharra gertatu aurreko unean zegoen egoeran uzteko behar diren gastuen zenbatekoa ordainduko du. Horrelakotzat joko dira ordezko piezen balioaren, eskulanaren kostuaren, muntaketa kostuen, ohiko garraioaren eta, halakorik badago, aduana eskubideen gastuak.
   Ez da kenkaririk egingo ordeztutako piezen balio galeragatik, baina kaltetuen zuten hondar balioa kenduko da.
   Asegurudunaren beraren tailer batean egindako konponketak ordainduko ditu konpainiak, eskulanaren eta erabilitako materialen kostuaren arabera, gehi administrazio gastuak estaltzeko behar den soldaten ehunekoa.
   Konponketaren ondorioz makinak ezbeharraren aurretik zuen balioa handitzen bada, gehikuntza hori kendu egingo zaie konponketa gastuei. Balio gehikuntzatzat joko da makinaren egungo balioa gainditzen duena, hurrengo b) apartatuak definitzen duen moduan, baldintza orokor hauetan ezarritako peritatze prozedurari jarraituz.
   b) Objektu aseguratua edo haren elementuren bat guztiz galtzen bada, kalte ordaina objektu horrek ezbeharra gertatu aurreko unean zuen balioaren arabera emango da, gehi muntaketaren eta ondasun suntsituaren desmuntaketaren gastuak, ken hondarren balioa.
   Objektu kaltetuaren egungo balioa kalkulatzeko, ezbeharraren egunean objektu berria berrezartzeak zuen balioari kendu egingo zaio erabileragatik, antzinatasunagatik eta zaharkitzapenagatik galdutako balioa.
   Ulertuko da objektu batek balio osoa galdu duela konpontzearen gastua, artikulu honen a) apartatuaren arabera kalkulatuta, handiagoa bada objektuaren uneko balioa baino.

c) Polizak estalitako ezbeharragatik egindako aldaketen, hobekuntzen, berrikuspenen, egokitzapenen edo gehikuntzen gastu guztiak asegurudunaren kontura joango dira. Halaber, konpainiak ez du kalte ordainik emango behin-behineko konponketengatik edo haien ondorioengatik, bere baimenik gabe egin badira.

d) Ondasun aseguratuak konpontzeko beste leku batera eraman behar badira, konpainiak ez du izango garraiatu bitartean ondasunek jasan dituzten kalteengatiko erantzukizunik.

e) Konpainiak ez du ordainduko inportatutako piezen edo ordezko piezen kosturik, estatuan pieza horiek fabrikatzen badira, patentepean eta ezaugarri berdinekin. Arau hori aplikagarria izango da kaltetutako piezak atzerrian eginak izanda ere.

f) Konpainiak inola ere ez du izango betebeharrik ondasun bakoitzerako aseguratutako zenbatekoa baino kantitate handiagoa ordaintzeko.

2. Behin adituen zenbatespena amaitutakoan, salbamendua asegurudunaren kontura joango da, eta hortik aurrera jasan ditzakeen erantzule izango da.

3. Kalte ordaina finkatu ondoren erreskateak, berreskuratzeak edo ordainak jasotzen baditu, asegurudunak nahitaez jakinarazi beharko dio konpainiari, hurrengo berrogeita zortzi orduen buruan, gehienez ere.

XX. BERME OSAGARRIAK.

23. artikulua. BERRIA EZARTZEKO BERMEA.

Baldin eta polizaren baldintza partikularretan berariaz jasota utzi bada berme hori sartuta dagoela eta kontzeptu horrengatik aseguratutako zenbatekoa bat datorrela ekipamendu elektroniko aseguratuen berrien balioarekin, konpainiak ondasun aseguratu bat osorik galtzean berria ezartzeko balioa ordainduko du. Ulertuko da balio hori dela klase eta gaitasun berdineko edo parekoko beste objektu berri batek une horretan balio zuena, garraio arruntaren, muntaketaren eta, halakorik balego, aduana eskubideen gastuak barne.

berme hori aplikatzeko, kontuan hartuko dira baldintza hauek:

a) Berma hau baliozkoa izango da soilik fabrikatu zirenetik bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten ekipamendu edo instalazioetarako.

b) Ondasun kaltetua egiaz ordeztu bitartean, ez da inolako ordainketarik egingo berme hori egongo ez balitz ordaintzea legokiokeen zenbatekotik gora.

c) Baldin eta ezbeharra gertatzean objektu kaltetua asegurudunak kontratatutako beste aseguru batek estaltzen badu, berria ezartzeko estaldurarik gabeak, poliza honen arabera ordaindu beharreko kalte ordainak ez du gainditukо berme hori egon ez balitz ordaindu beharko litzatekeena.

d) Berme honi aplikatu egingo zaizkio baldintza orokorretan ezarritako ekipamendu elektronikoen estalduraren gainerako klausulak eta baldintzak, 30. artikuluko b) apartatua salbu.

24. artikulua. DATUAK PROZESATZEKO EKIPAMENDUENTZAKO DATUAK BERRESKURATZEKO GASTUEN BERMEA.

Konpainiak, kontzeptu honetarako aseguratutako zenbatekoaren mugarekin, kalte ordainak emango ditu datu aseguratuen euskarri magnetikoetan jasotako informazioa berreskuratzeko eta

berrinprimatzeko gastuengatik, baldin eta euskarri horiek konpainiak polizako ekipamendu elektronikoen estalduraren bidez babestutako galera edo kaltea jasan badute.

ESTALDURA GUZTIETAKO BALDINTZA OROKORRAK.

XXI. ASEGURUAREN OINARRIAK.

25. artikulua.

I. Poliza hau aseguru-hartzaileak dagokion galdetegian egindako adierazpenen arabera itundu da, eta horrexegatik onartu du arriskua eta kalkulatu du dagokion prima konpainiak.
2. Baldin eta polizaren edukia ez badator bat aseguru proposamenarekin, aseguratutako arriskuaren egiazko ezaugarriekin edo adostutako klausulekin, aseguru-hartzaileak konpainiari erreklamazioa egin ahalko dio hilabeteko epean, poliza aurkezten duenetik hasita, dagoen desadostasuna konpontzeko.
Epe hori igaro eta erreklamaziorik egin ezean, polizan xedatutakoari jarraituko zaio.

26. artikulua.

Baldin eta aseguru-hartzaileak, galdetegiko adierazpenak egitean ezkutatu edo zehaztasunik gabe ematen baditu arriskua balioestean eragin dezaketen eta ezagutzen dituen inguruabarrak, edo egindako kontratua ez badator bat arrisku aseguratuaren egiazko inguruabarrekin, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Konpainiak kontratua deuseztatu ahalko du aseguru-hartzaileari adierazpen bat bidaliz, hilabeteko epean, aseguru hartzaileak datuak gorde edo zehaztasunik gabekoak eman dituela dakienetik zenbatzen hasita. Konpainiari dagozkio, bere dolo edo erru larririk ezean, adierazpena egiten den unean abian den aseguru aldiko primak.

b) Ezbeharra konpainiak adierazpen hori egin aurretik gertatzen bada, kalte ordaina txikitu egingo da, adostutako primaren eta arriskuaren egiazko nolakotasuna ezagutu izanez gero aplikatuko zatekeenaren arteko diferentziaren neurrian. Aseguru-hartzailearen dolo edo erru larria egon bada, konpainiak ez du kalte ordainik eman beharko.

XXII. ASEGURUAREN HASIERA ETA IRAUPENA.

27. artikulua. KONTRATUAREN ERAGINA.

1. Kontratua polizaren baldintza partikularretan adierazitako aldirako zehaztu da, eta indarrean hasiko da bertan jarritako egunean eta orduan, baldin eta sinatuta badaude eta konpainiak lehen ordainagiriko prima kobratu badu.
2. Kontratua baliogabea izango da amaitzean ez badago arriskurik edo ez bada ezbeharrik gertatu.

28. artikulua. ASEGURUAREN IRAUPENA.

Kontratua egikaritzearen epeari buruz baldintza administratibo partikularren agiriak ezarritakoari jarraituko zaio.

29. artikulua. ASEGURUA IRAUNGITZEA.

Bi alderdiek adostuz gero erabaki ahalko dute kontratua suntsiaraztea, ezbehar bat aitortu ondoren. Hala gertatuz gero, konpainiak aseguru-hartzaileari itzuli egingo dio suntsiarazpenaren ondoreak hasteko dataren eta abian den aseguru aldiaren mugaeguneratzearen arteko aldiari dagokion prima osoaren zatia.
Baldin eta kontratuaren indarraldian interes aseguratua desagertzen bada, une horretan aseguru kontratua suntsiarazi egingo da eta asegurudunak eskubidea izango du kontsumitu gabeko prima bereganatzeko.

30. artikulua.

Alderdietako edozeinek estaldurak, zenbateko aseguratuak edo adostutako edozein kontratu baldintza aldatu nahi badu hurrengo aseguru aldirako, besteari behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko dio, beste alderdiak kontratuaren luzapenaren aurka egin ahal izateko, abian den aldia amaitu baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

XXIII. PRIMEN ORDAINKETA

31. artikulua. PRIMAREN ORDAINKETA ETA EZ ORDAINTZEAREN ONDOREAK

A) ARAU OROKORRA.
Aseguru-hartzaileak nahitaez ordaindu beharko du prima, polizaren baldintza orokorrei eta partikularrei jarraituz. Ordainketa lekuaren inguruko itunik ez badago, konpainiak ordainagiriak aseguru-hartzaileak emandako azken egoitzan aurkeztuko ditu.
B) HASIERAKO PRIMA.
1. Hasierako prima da baldintza partikularretan zehaztutakoa, hau da, bertan jasotako lehen estaldura aldikoa.
2. Baldin eta aseguru-hartzailearen erruz prima ez bada ordaindu kontratua sinatzerako, edo, hala badagokio, hura iraungitzerako, konpainiak eskubidea du kontratua suntsiarazteko edo zorretan dagoen prima betearazpen bidetik eskatzeko.
3. Prima ez bada ezbeharra gertatu aurretik ordaindu, konpainia bere betebeharretik libre gelditukо da, non eta ez den aurkakoa berariaz adostu.
C) HURRENGO PRIMAK.
1. Kontratua isilbidez luzatzen bada, geroko primak lortuko dira zenbateko aseguratuari aktuarioen irizpide teknikoetan oinarrituta konpainiak une bakoitzean dituen primen tarifak aplikatzetik, hain zuzen. Halaber, kontuan hartuko dira sortutako arriskua handitzeko edo txikitzeko bermeen edo kausen aldaketak, baldintza orokorren 45. eta 46. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

2. Konpainiak, kontratua iraungo baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago, aseguru-hartzaileari jakinaraziko dizkio estaldura aldi berri bakoitzerako prima aplikagarriak, dagokion ordainagiriaren kobrantza jakinarazpena bidaliz (hartzailearen bizitokian edo polizan zehaztutakoan), kobrantza aurkezteko epea jakinarazteko. Baldin eta estaldura berrirako ezarritako tarifak igoera badakar aurreko aldian aplikatutakoarekin alderatuta, hartzaileak, baldintza orokor hauen 36. artikuluan zehaztutakoa hargatik eragotzi gabe, suntsiarazitzat jo ahalko du kontratua, berariaz konpainiari jakinarazita, gutun ziurtatu baten, telegrama baten edo telefax baten bidez, kontratua iraungi aurretik. Hala eginez gero, kontratua iraungita gelditukо da abian den aldia amaitutakoan.

Primaren ordainketa banku entitate batean helbideratuta dagoelako ordainagiria hartzailearen kontutik kobratzen bada, konpainiak zenbatekoa itzuliko du.

3. Hurrengo primaren bat ez ordaintzeak berekin ekarriko du estaldura etenda gelditzea iraungi eta hilabetera. Hilabete horretan ezbeharren bat gertatzen bada, konpainiak eman beharreko kalte ordainaren zenbatekotik kendu egin ahal izango du abian den aldiagatik zorretan dagoen prima. Konpainiak ez badu zorretan dagoen primaren ordainketa erreklamatzen iraungi eta sei hilean, gehienez, kontratua suntsiarazita gelditukо da.

32. artikulua. FINANTZA EDO KREDITU ENTITATEEN BITARTEZ ORDAINTZEA.

Ordainketa modu gisa primaren ordainagiriak finantza entitate batean edo kreditu entitate batean helbideratzea adosten bada, aseguru-hartzaileak konpainiari aurkeztuko dio bankuari, aurrezki kutxari edo kreditu kooperatibari bideratutako gutun bat, dagokion agindua ematen duena, eta aplikagarriak izango dira, kapitulu honetan zehaztutakoez gain, honako hauek:

A) Lehen prima.

Prima ordaindutzat joko da polizaren lehen ondore egunean, salbu eta ondore horiek hasi eta hilabeteko epean finantza edo kreditu entitate izendatuak ordaindu gabeko ordainagiria itzultzen badu. Hala gertatuz gero, konpainiak hartzaileari idatziz jakinaraziko dio ez dela ordaindu eta ordainagiria konpainiaren egoitzan duela, 15 egunez, ordain dezan. Epe hori igaro eta prima ordaindu ez bada, kontratua suntsiarazita gelditukо da.

B) Hurrengo primak.

Finantza edo kreditu entitateak ordaindu ez den ordainagiria itzultzen badu, konpainiak aseguru-hartzaileari jakinaraziko dio ez dela ordaindu, eta adieraziko dio ordainagiria egoitzan duela, ordain dezan. Asegurua etenda gelditukо da hilabeteko epean ordainketa egiten ez bada, asegurua iraungi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo 15 eguneko epean, hartzaileari ordaindu ezaren jakinarazpen horretatik zenbatzen hasita, hilabete hori igaro bada.

33. artikulua. ASEGURUAREN ESTALDURA ETEN BITARTEAN ORDAINTZEA.

Aurreko artikuluen arabera kontratua ez bada suntsiarazi edo iraungi, estaldurak berriz ere ondoreak izango ditu aseguru-hartzaileak prima ordaindu eta hurrengo 24 orduetan.

34. artikulua. ORDAINKETA ZATIKATZEA.

1. Adostu ahalko da urteko primaren ordainketa zatikatzea, polizaren baldintza partikularretan ezarritako estipulazioetan zehaztutako epeen eta moduaren arabera.

2. Baldin eta aseguru-hartzaileak primaren ordainketa zatikatzeko ordainagirietako bat ordaintzen ez badu, konpainiak aseguru-hartzaileari exijitu ahalko dio iraungitzeko dauden ordainagiri guztiak ordaintzeko. Ordainketa hori gehienez ere egin beharko da hartzaileak konpainiak bitarteko frogagarrien bidez bidali zion jakinarazpena jaso eta hurrengo hogeita hamar egunean. Ordainketa egin ezean, asegurua etenda gelditukо da ordaindu gabeko primaren lehen zatia iraungitzearen biharamunetik hogeita hamar egunera.
3. Aurreko apartatuan xedatutakoa hargatik eragotzi gabe, eta estaldura eten ez bada, ezbeharra gertatuz gero, konpainiak kalte ordainetik kendu egin ahal izango du iraungitako prima zatien, , aseguru-hartzaileak ordaindu gabekoen, zenbatekoa. Ondasun aseguratuak guztiz galduz gero, abian den aseguru urteari dagozkion prima zati iraungi gabeen zenbatekoa ere kenduko da, 37. artikuluan xedatutakoa hargatik eragotzi gabe.

35. artikulua.

1. Konpainiak betebeharra izango du soilik zuzendaritzak edo haren legez baimendutako ordezkariek bidalitako ordainagiriengatik. Primaren ordainagiriak ordaintzeko bankuan helbideratzea adostu bada, ordainketaren froga izango dira ordainketa helbideratuta duen banku edo aurrezki entitateak igorritako abonu agiriak eta ziurtagiriak.
2. Konpainiaren agente ordezkari bati egindako primen ordainketak zuzenean konpainiari egindakoaren ondore berberak izango ditu.

XXIV. ARRISKUAREN ALDAKETAK.

36. artikulua.

Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak, kontratuak iraun bitartean, konpainiari jakinarazi beharko dizkio arriskua larritzen duten inguruabar guztiak, ahal bezain laster, konpainiak kontratua egiteko unean jakin izan balitu kontratua egingo ez zuketenak edo garestiago egingo zuketenak.

37. artikulua.

1. Konpainiak onartu edo baztertu egin ahalko du arriskua larritzea, honako arau hauek aplikatuta:
a) Onartzen badu, konpainiak aseguru-hartzaileari proposatuko dio kontratua aldatzea, larritzea jakinarazi zaion unetik hamabi hilabeteko epean.
Aseguru-hartzaileak hamabost egun ditu proposamena jasotzen duenetik hura onartzeko edo baztertzeko. Baztertuz gero, edo erantzunik ematen ez badu, konpainiak epe hori amaitutakoan kontratua desegin ahalko du, aseguru-hartzaileari jakinarazi ondoren, eta hamabost eguneko epea eman beharko dio berriz ere. Horiek igarotakoan, hurrengo zortzi egunetan, aseguru-hartzaileari jakinaraziko dio behin betiko deuseztatzea.
b) Konpainiak ez badu onartzen arriskuaren aldaketa, kontratua suntsiarazi ahalko du, aseguru-hartzaileari hilabeteko epean jakinarazita, larritzearen berri izan duenetik zenbatzen hasita.
2. Baldin eta aseguru-hartzaileak edo asegurudunak adierazpena egin ez eta ezbeharra gertatzen bada, konpainiak libre gelditukо da prestaziotik, hartzaileak edo asegurudunak fede txarrez jokatu

badu. Bestela, konpainiaren prestazioa txikitu egingo da, adostutako primaren eta arriskuaren egiazko nolakotasuna ezagutuz gero aplikatuko litzatekeenaren arteko diferentziaren neurrian.
3. Arrisku larritzea ezin bazaio egotzi aseguru-hartzaileari edo asegurudunari eta konpainiak aldaketa onartzen ez badu, nahitaez ordaindu beharko dio azken horrek abian den aseguru aldirako sortu gabeko prima.

38. artikulua.

Aseguru-hartzaileak edo asegurudunak, kontratuak iraun bitartean, konpainiari jakinarazi egin ahalko dizkio arriskua txikitzen duten inguruabar guztiak, hark kontratua egitean jakin izan balitu aseguru-hartzailearentzako kontratu abantailatsuagoa ekarriko luketenak.
Hala bada, primak estalitako aldia amaitutakoan, konpainiak hurrengo primaren zenbatekoari dagokion zenbatekoa kendu beharko dio, eta aseguru-hartzaileak, bestela, eskubidea izango du kontratua suntsiarazteko eta ordaindutako primaren eta ordaintzea legokiokeenaren arteko diferentzia bueltan jasotzeko, arriskua txikitu zela jakinarazi zuen unetik hasita.

39. artikulua. ZENBATEKO ASEGURATUAK BIRBALORIZATZEA.

Zenbateko aseguratuak bribalorizatzea adostu den aseguru luzagarrietan, urtean behin egingo da hori, honako arau hauei jarraituz:

a) Birbalorizatze indizea ehuneko finko bat denean, birbalorizatzea honela egingo da: aurreko urterako aseguratutako zenbatekoei ehuneko finkoa aplikatuz.

b) Baldin eta aseguru-hartzaileak aukeratutako indizea aldakorra bada, kontsumo prezioen indizearen igoeraren araberakoa, birbalorazazioa egingo da aurreko urtearekin alderatuta urtaldi bakoitza amaitu aurreko hilean indize horrek zuenetik izandako aldaketaren neurri berean, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako datuei jarraituz.

Zenbateko aseguratuen birbalorizazioak primak egokitzea ekarriko du. Nolanahi ere, aseguru-hartzaileak edo konpainiak aukera izango dute, iraungi aurretik gutxienez bi hilabete lehenago dagokion komunikazioa eginda, birbalorizazio sistema aplikatzeari uko egiteko, hurrengo aseguru alditik aurrera.
Baldin eta adostu bada zenbateko aseguratuak automatikoki birbalorizatuko direla, konpainiak uko egingo dio 52. artikuluan jasotako proportzio araua aplikatzeari, baldin eta hautemandako azpiasegurua ez bada balio errealen edo berrien balioen –horiek badira bermatutakoak– % 10 baino gehiago.

XXV. ONDASUN ASEGURATUAK ESKUALDATZEA.

40. artikulua.

1. Baldin eta ondasun edo arrisku aseguratuak eskualdatzen badira, eskuratzailea subrogatu egingo da aurreko titularrari aseguru kontratuan zegozkion eskubide eta betebeharretan.

2. Asegurudunak idatziz jakinaraziko dio eskuratzaileari ondasun aseguraturako aseguru itundua dagoela. Behin eskualdatzea egiaztatutakoan, konpainiari edo haren ordezkariei jakinarazi beharko die, hamabost eguneko epean.
3. Eskualdatzeko unean iraungitako primen ordainketaren erantzule izango dira, solidarioki, eskuratzailea eta azken titularra, edo haren jaraunsleak, hil egin bada.
4. Ondasun aseguratuen eskuratzaileak kontratua suntsiarazi ahalko du konpainiari hamabost eguneko epean jakinarazten badio, asegurua zegoela jakin zuenetik hamabost eguneko epean. Kasu horretan, konpainiak eskubidea du suntsiaraztea gertatu zenean abian hasi zen aldiari dagokion primarako.

41. artikulua.

Konpainiak eskualdatze egiaztatuaren berri jakiten duenetik honako aukera hauek izango ditu:

a) Kontratu lagatzea onartzea, aldaketa gehigarria igorri ondoren.

b) Kontratua suntsiaraztea, eskualdatzea ezagutu eta hurrengo hamabost eguneko epean. Erabakia eskuratzaileari idatziz jakinarazi ondoren, konpainiak betebeharra izango du hilabetez, une horretatik hasita.

Konpainiak suntsiaraztearen ondorioz arriskurik jasan ez duen aseguru aldiei dagozkien primaren zatia itzuli beharko du.

42. artikulua.

Aurreko 48. eta 49. artikuluetako arauak aplikatu egingo dira orobat aseguru-hartzailea edo aseguruduna hiltzen bada edo hartzekodunen lehiaketan sartuz gero.

XXVI. EZBEHARRAK.

43. artikulua. EZBEHARRA GERTATUZ GERO SORTUTAKO BETEBEHARRAK.

Ezbeharra gertatuz gero, honako betebehar hauek izango ditu aseguru-hartzaileak edo asegurudunak:

a) Ezbeharraren ondorioak txikitzeko ahal beste bitarteko erabiltzea. Betebehar hori urratuz gero, konpainiak prestazioa dagokion neurrian txikitu ahalko du, hortik eratorritako kalteen garrantzia eta asegurudunaren errua aintzat hartuta. Urratze hori argi eta garbi konpainiari kalte egiteko edo hura engainatzeko gertatzen bada, ezbeharretik eratorritako prestazio orotatik libre geldituko da.

Aipatutako betebehar hori betetzeagatik sortutako gastuak, salbatutako ondasunentzat desegokiak edo neurriz kanpokoak ez badira, konpainiak ordainduko ditu, baldintza orokorretan ezarritako mugara arte, baita gastu horiek emaitza eraginkorrik edo positiborik izan ez badute ere. Ez bada kontzeptu horretarako zenbateko zehatz bat adostu, egiaz gertatutako gastuen kalte ordaina emango da, baina zenbatekoa ezingo da izan zenbateko aseguratua baino handiagoa.

Baldin eta kontratu honi jarraituz konpainiak ezbeharrak sortutako kaltearen zati baten kalte ordaina bakarrik eman behar badu, nahitaez ordaindu beharko du salbamendu gastuen

neurriko zatia, salbu eta aseguru-hartzaileak edo asegurudunak konpainiaren jarraibideen arabera jokatu badute.

b) Konpainiari jakinaraztea ezbeharra gertatu dela, gehienez ere haren berri izan eta zazpi egunera, salbu eta epe zabalagoa eman bada polizaren baldintza partikularretan. Lapurreta ezbeharretan, eta hirugarrenen fede txarra dagoela uste denetan, gainera, epe horren barruan gertakaria ezbeharra gertatu den lekuko polizia autoritatean edo autoritate judizialean salatu beharko du, asegurua dagoela jakinarazita. Konpainiari salaketaren ziurtagiria bidali beharko dio.

Betebehar hori bete ezean, konpainiak erreklamatu egin ahal izango ditu ezbeharra jakinarazi ez izanagatik sortutako kalte-galerak, non eta ez den frogatu ezbeharraren berri beste bitarteko baten bidez izan zuela.

c) Konpainiari idatziz jakinaraztea, aurreko apartatuan adierazitako jakinarazpenetik zenbatzen hasita, ezbeharraren unean zeuden objektuen zerrenda, salbatutakoena, eta kalte edo galeren zenbatespena.

Asegurudunari dagokio objektuak lehendik bazeudela frogatzea. Dena den, polizaren edukiak asegurudunaren aldeko presuntzioa ekarriko du arrazoiz froga eraginkorragorik aurkeztu ezin denean.

d) Konpainiari ezbeharraren inguruabarrei eta ondorioei buruzko informazio mota guztiak ematea. Informazio betebehar hori urratzeak kalte ordainerako eskubidea galaraziko du dolo edo erru larria egon bada.

e) Ezbeharraren hondarrak eta arrastoak gordetzea kalteak likidatu arte, ezintasun materialik ezean,kalte ordain berezirik ekarriko ez duena; erne ibiltzea kalte edo desagertze gehiagorik gerta ez dadin, haren kargu izango bailirateke; eta, aurkakoa adostu ezean, objektu aseguratuak ez abandonatzea, ez guztiz ez partez.

f) Halaber, aseguru-hartzaileak eta asegurudunak ezbeharra zuzen-zuzen izapidetzen lagundu behar dute, eta konpainiari ahalik eta lasterren eman beharko diote ezbeharrarekin lotutako edozein jakinarazpen judizialen, estrajudizialen edo administratiboren berri. Nolanahi ere, ez dute ezbeharren inguruko hirugarren kaltetuen erreklamaziorik negoziatuko, onartuko eta baztertuko, konpainiaren berariazko baimenik ezean.

Adierazitako arauez gain, aseguru-hartzaileak edo asegurudunak ezbeharrik izanez gero bete egin beharko ditu estaldura bakoitzerako baldintza orokor espezifikoetan zehaztutako jarraibideak.

44. artikulua. KALTE ORDAINAREN MUGA.

1. Ondasun edo estaldura bakoitzagatik aseguratutako zenbatekoa da ezbehar bakoitzean kontzeptu guztiengatik konpainiak eman beharreko kalte ordainaren gehienezko muga.
2. Aseguruak ezin dio asegurudunari aberasterik ekarri. Kaltea zehazteko, interes aseguratuak ezbeharra gertatu aurreko unean zuen balioari erreparatuko zaio.
3. Proportzio araua: Ezbeharra gertatzean aseguratutako zenbatekoa txikiagoa bada interesaren balioa baino, konpainiak gertatutako kaltearen ordaina emango du zenbateko horrek interes aseguratua estaltzen duen neurri berean.
4. Ekitate araua: Baldin eta ezbeharra gertatzean arrisku aseguratuaren ezaugarriak ez badatoz bat polizan deskribatutakoekin, edo arrisku aseguraturako adostutako prebentzio eta segurtasun neurriak ez badaude edo zerbitzutik kanpo badaude, konpainia libre egongo da prestaziotik, hartzaileak edo asegurudunak dolo edo erru larriz jokatu badu. Bestela, konpainiak ordaindu beharreko kalte ordaina txikitu egingo da adostutako primaren eta ezaugarri errealen arabera edo

prebentzio eta segurtasun neurririk ez egoteagatik aplikatuko litzatekeenaren arteko diferentziaren neurrian.
5. Gainasegurua: Zenbateko aseguratua askoz handiagoa bada interes aseguratua baino, alderdietako edozeinek zenbatekoa eta prima txikitzeko eskatu ahalko du, eta konpainiak itzuli egin beharko du jasotako primen gehiegizko zatia. Ezbeharra gertatzen bada, egiaz gertatutako kaltearen ordaina emango du konpainiak.
Aurreko paragrafoan aurreikusitako gainasegurua asegurudunaren fede txarraren ondorioa denean, kontratua ez da eraginkorra izango. Konpainiak, fede onez, ordea, iraungitako primak eta abian den aldikoak gorde ahalko ditu.

45. artikulua. Frankiziak.

Arriskuetako batzuetarako frankizia adosten bada, konpainiak arrisku horiei lotutako eta kalte ordaina eman beharreko ezbehar bakoitzean horretarako baldintza orokorretan eta/edo partikularretan adostutako zenbatekotik gorakoaz bakarrik izango da arduradun. Bi frankizia aplikagarri edo gehiago badaude, zenbateko handienekoa bakarrik hartuko da kontuan.

46. artikulua. PERITATZEA ETA ARBITRAJEA

1. Konpainia ahalik eta azkarren agertu beharko da ezbeharraren lekuan, haren adituaren edo ordezkariaren bidez, ezbeharraren kausen eta ondorioen dagozkion tasazio eta egiaztapen eragiketak hasteko.
2. Baldin eta alderdiak, edo kaltetua eta konpainia, ados jartzen badira edozein unetan kalte ordainaren zenbatekoan eta moduan, konpainiak adostutako zenbatekoa ordaindu beharko du, edo beharrezko eragiketak egin beharko ditu objektu aseguratua edo kaltetua ordezteko, haren izaerak aukera ematen badu.
3. Akordioa ez bada lortzen ezbeharraren berri eman eta hurrengo berrogei egunetara, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Alderdi bakoitzak aditu bat izendatuko du, eta jasota gelditu behar du haien onarpenak. Alderdietako batek izendapen hori egiten ez badu, nahitaez egin beharko du berea izendatu duenak eskatu eta hurrengo zortzi egunetan. Bestela, ulertuko da onartu egiten duela beste alderdiaren adituak emandako irizpena, eta hari lotuta gelditzuko da.
Adituak ados jartzen badira, baterako akta batean jasoko da; bertan azalduko dira ezbeharraren kausak, kalteen balioespena, kalte ordaina zehazteko eragiten duten gainerako inguruabarrak eta haren zenbateko likidoaren proposamena.
b) Adituak ados jartzen ez badira, bi alderdiek hirugarren aditu bat adostuko dute. Izendapen hori egin ezean, ondasunak zeuden lekuko lehen auzialdiko epaileak egingo du, borondatezko jurisdikzioko egintzan, eta adituen zozketarako Prozedura Zibilaren Legeak ezarritako izapideen bitartez. Hala eginez gero, adituaren irizpena alderdiek zehaztutako epean emango da, edo, bestela, hogeita hamar egunean, hirugarren adituak izendapena onartu duenetik zenbatzen hasita.
c) Adituen irizpena, ahobatezkoa zein gehiengozkoa, alderdiei berehala jakinaraziko zaie, eztabaidaezin, eta loteslea izango da haientzat, salbu eta alderdiren batek epaitegietan aurkaratzen badu, hogeita hamar eguneko epean konpainiak eta laurogeikoan asegurudunak. Bi epe horiek jakinarazpen datatik hasita zenbatuko dira. Epe horietan hori egin ezean, adituen irizpena aurkaraezin bihurtuko da.

d) Adituen irizpena aurkaratuz gero, konpainiak ezagututako inguruabarren arabera zor izan dezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du, eta, bestela, bost eguneko epean ordainduko du adituek zehaztutako kalte ordainaren zenbatekoa.

e) Konpainia atzeratu egiten bada aurkaraezin bihurtutako kalte ordaina ematean, eta asegurudunak epaitegietan erreklamatu behar badu, dagokion kalte ordaina handitu egingo da, legez ezarritako berandutze interesekin, zeinak sortzen hasiko baitira konpainiarentzat balioespena aurkaraezin bihurtu zenean eta, edozein kasutan, prozesuak asegurudunari sortutako gastuen zenbatekoarekin.

4. Alderdi bakoitzak bere adituaren ordainsariak ordainduko ditu. Hirugarren adituarenak eta adituen tasazioak ekarritako gainerako gastuak erdi bana ordainduko dituzte asegurudunak eta konpainiak. Nolanahi ere, baldin eta alderdietako edozeinek beharrezko bihurtu badu peritatzea argi eta garbi kaltearen neurriz kanpoko balioespenari eutsi diolako, hark bakarrik ordainduko ditu gastu horiek.

5. Konpainiak eta adituek eskubidea izango dute ezbeharra gertatu den jabetzetan sartzeko, liburuak eta dokumentuak egiaztatzeko, eta lehenak bere interesen aldeko behar beste neurri arrazoizko hartu ahalko ditu.

47. artikulua. KALTE ORDAINEN ORDAINKETA

Konpainiak nahitaez eman beharko du kalte ordaina ezbeharra egon dela eta, hala badagokio, hartatik eratorritako kalteen zenbatekoa zehazteko beharrezko ikerketen eta peritatzeen ondoren. Aseguruaren nolakotasunak aukera ematen badu, eta asegurudunak baimena emanez gero, konpainiak kalte ordaina eman beharrean ezbeharra jasan duen objektua konpondu edo ordeztu ahalko du.

48. artikulua. LAPURTUTAKO OBJEKTUAK BERRESKURATZEA.

1. Objektu aseguratua berreskuratu egiten bada laurogeita hamar egun baino lehen, ezbeharra gertatu den egunetik zenbatzen hasita, asegurudunak jaso egin beharko du, non eta baldintza partikularretan ez bada berariaz jaso konpainiarentzat abandonatzeko eskubidea.

2. Objektu aseguratua epe hori amaitzerako berreskuratu bada, eta kalte ordaina ordainduta badago, asegurudunak jasotako kalte ordaina gorde ahalko du, objektu aseguratuaren jabetza konpainiari emanda, edo berreskuratu egin ahalko du, berreskuratutako gauzagatik edo gauzengatik jaso duen kalte ordaina itzulita.

49. artikulua. SUBROGAZIOA.

1. Kalte ordaina eman ondoren, konpainia ezbeharragatik asegurudunari haren erantzuleen aurrean dagozkion eskubideez eta ekintzez baliatu ahalko da, kalte ordainaren mugara arte, baina eskubide hori ezingo da erabili asegurudunaren kalterako.

2. Aseguruduna izango da bere ekintzen edo omisioen bidez konpainiari subrogatzeko duen eskubidean eragindako galeren arduradun.

3. Konpainiak ez du eskubiderik izango legearen arabera asegurudunaren erantzukizuna dakarten gainerako ekintzak edo omisioak egin dituzten pertsonen aurka subrogatzeko, ezta ezbeharraren eragilearen kontra ere, asegurudunaren ahaidea bada zuzeneko zein alboko lerroan, odolkidetasuneko hirugarren maila zibilera arte, haren guraso adoptatzailea bada edo adopziozko

semea edo alaba bada, asegurudunarekin bizi dena. Arau horrek ez du eraginik izango erantzukizuna doloagatikoa bada edo aseguru kontratu batek babestuta badago. Azken kasu horretan, subrogazioa mugatuta egongo da kontratu horren baldintzen arabera duen irismenera.
4. Baldin eta hirugarren erantzule baten aurrean konpainia eta aseguruduna badaude, jasotako ordaina bien artean banatuko da, haien interesaren neurrian.

XXVII. HIRUGARRENEN ESKUBIDEAK.

50. artikulua.

1. Hirugarrenek onasun aseguratuei lotuta dituzten eskubideak hedatu egingo dira asegurudunari dagozkion kalte ordainetara. Asegurudunak konpainiari jakinaraziko dio eskubide hori eratu izana, eta data.
2. Kontratu honen lotura juridikoa soilik aseguru-hartzailearen edo asegurudunaren eta aseguratzailearen artekoa denez, hirugarrenen eskubide posiblea kalte ordaina jasotzera mugatuko da, hala badagokio, eta ezingo dute esku hartu ezbeharra izapidetzen. Halaber, aseguru-hartzaileari edo asegurudunari dagozkion eskubide murrizketek edo galerek eragingo diete.

XXVIII. ALDIBEREKO ASEGURUAK.

51. artikulua.

1. Poliza honek estalitako edozein arrisku beste entitate aseguratzaile batek ere estaltzen badu aldi bererako, aseguru-hartzaileak edo asegurudunak konpainiari eta gainerako aseguratzaileei jakinarazi egin beharko dizkiete dauden gainerako aseguruak, aurkakoa adostu ezean. Doloz jakinarazpen horretan huts eginez gero, eta gainasegurua izanda ezbeharra gertatzen bada, konpainiak ez du nahitaez kalte ordaina eman beharko.
2. Ezbeharra gertatu ondoren, aseguru-hartzaileak edo asegurudunak konpainiari eta aseguratzaile bakoitzari jakinarazi beharko diote, 51. artikuluan xedatutakoari jarraituz, gainerako asegurudunei adierazita kalte ordaina ematen lagunduko dutela zenbateko aseguratuaren neurrian, eta ezingo da inola ere kaltearen zenbatekoa gainditu. Muga horren barruan, asegurudunak konpainiari dagokion kalte ordaina eskatu ahalko dio, dagokion neurrikoa.
Zenbateko aseguratuen guztizko zenbatekoak nabarmen gainditzen badu interesaren balioa, aplikagarria izango da 52. artikuluko 5. apartatuak xedatutakoa.

XXIX. KOMUNIKAZIOAK.

52. artikulua.

1. Aseguru-hartzailearen, asegurudunaren edo onuradunaren komunikazioak baliozkoak izango dira soilik idatziz bidali bazaizkio konpainiari; dena den, aseguru artekari bati egindakoek zuzenean konpainiari egindakoen ondore berberak izango dituzte.

2. Konpainiak aseguru-hartzaileari egindako komunikazioak baliozkotzat joko dira lehenak bestearen azken egoitza ezagunera bidaltzen baditu; aseguru-hartzailearenak konpainiaren egoitza sozialera bidali beharko dira, edo polizaren kudeaketan esku hartu duen bulegoarenera.
3. Konpainiari aseguru artekariak aseguru-hartzailearen izenean egindako komunikazioek hark egindakoen ondore berberak izango dituzte, salbu eta hark aurkakoa adierazten badu eta indarreko aseguru kontratua aldatzeko edo suntsiarazteko bada.

XXX. PRESKRIPZIOA ETA JURISDIKZIOA ETA ERREKLAMAZIO INSTANTZIAK.

53. artikulua.

1. Kontratu honetatik eratorritako ekintzak preskribatu egingo dira bi urteren buruan, egin ahal diren datatik zenbatzen hasita.
2. Kontratu hau Espainiako jurisdikzioaren mendean dago eta, haren barruan, asegurudunaren egoitzakoa izango da hartatik eratorritako ekintzen inguruko erabakietarako epaile eskuduna. Horretarako, beraz, asegurudunak Espainian egoitza bat izendatuko du, berea atzerrian badago.
Kontratu hau interpretatzean edo egikaritzean desadostasunen bat egonez gero, aseguru-hartzaileak edo asegurudunak, onuradunek eta hirugarren kaltetuek edo haien eskubidedunek, hala badagokio eta kontratu honetan aseguru-hartzaileari emandako jarduketa arauei jarraituz, erreklamazioak egin ahalko dituzte konpainiaren Erreklamazioen Zuzendaritzan.
Baldin eta erreklamazioa aurkeztu eta bi hilabeteko epean hura ebatzi ez bada, edo eskaera ezetsi ez bada, aurreko paragrafoan aipatutakoak erreklamazio bat aurkeztu ahalko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Aseguratuaren eta Pentsio Planen Partaidearen Defentsarako Mandatariari.
3. Alderdiak ados badaude soilik bideratu ahalko dira kontratu honen interpretazioaren eta betetzearen inguruko diferentziak arbitroetara, legediari jarraituz.

EZOHIKO ARRISKUEN ESTALDURA.

ONDASUNEN KALTEEN ASEGURUETAN ESPAINIAN JAZOTAKO EZOHIKO GERTAKARIETATIK ERATORRITAKO GALERENGATIK ASEGURUEN KONPENTSAZIO KONTSORTZIOAK KALTE ORDAINAK EMATEAREN KLAUSULA

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako eta maiatzaren 16ko 12/2006 Legeak aldatutako Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren Lege Estatuaren Testu Bateginak xedatutakoari jarraituz, aipatutako entitate publikoaren alde errekargua nahitaez jaso behar duen aseguru kontratu baten hartzaileak ahalmena du edozein entitate aseguratzailerekin ezohiko arriskuen estaldura adosteko, indarreko legediak eskatutako baldintzekin.
Espainian jazotako ezohiko gertakarien ondoriozko ezbeharretako kalte ordainak eta bertan kokatutako arriskuei eragiten dietenak, Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak ordainduko ditu, hartzaileak haren aldeko errekarguak ordaindu baditu eta honako egoeraren bat gertatzen bada:
a) Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak estalitako ezohiko arriskua ez egotea entitate aseguratzailearekin kontratatutako aseguru polizan.

b) Aseguru poliza horrek babestuta ere, entitate aseguratzailearen betebeharrak bete ezin izatea, judizialki lehiaketa aitorpena egin duelako edo Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak esku hartutako edo bere gain hartutako likidazio prozedura batean dagoelako.
Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak bere jardunean jarraitu egingo dio aipatutako lege estatutu horretan xedatutakoari; 50/1980 Legean, urriaren 8koan, Aseguru Kontratuari buruzkoan; urriaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsitako Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan; eta xedapen osagarrietan xedatutakoari.

I. LEGEZKO ARAUEN LABURPENA.

1. Estalitako ezohiko gertakariak.
a) Honako fenomeno naturalak: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (olatu kolpeak barne), sumendi erupzioak, ekaitz zikloniko ezohikoa (135 km/h baino gehiagoko haizete ezohikoak eta tornadoak barne) eta meteorito erorketak.
b) Terrorismoagatik, matxinadagatik, sedizioagatik, altxamenduagatik eta herri istiluengatik gertatuak.
c) Indar Armatuen edo segurtasun indar eta kidegoen ekintzak edo jarduketak, bake garaietakoak.

2. Kanpo dauden arriskuak.
a) Aseguru Kontratuen Legearen arabera kalte ordainik ez dakartenak.
b) Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren aldeko errekargua nahitaezkoa duten aseguru kontratuez besteko kontratuek aseguratutako ondasun aseguratuetan gertatutakoak.
c) Gauza aseguratuaren berezko akatsa edo hutsa dela eta gertatutakoak, edo mantentze falta agerikoari.
d) Gatazka armatuek sortutakoak, nahiz eta gerra adierazpen ofizialik ez egon.
e) Energia nuklearretik eratorriak, hargatik eragotzi gabe 25/1964 Legean, apirilaren 29koan, Energia Nuklearrari buruzkoan, xedatutakoa. Aurrekoa gorabehera, ulertuko da instalazio nuklear aseguratu batean gertatutako kalte guztiak barruan daudela, instalazioari berari eragiten dion ezohiko gertakari baten ondoriozkoak direnean.

f) Denboraren ondoriozkoak eta, era iraunkorrean osorik edo hein batean murgildutakoei dagokienez, olatu eta korronte arrunten ondoriozkoak.
g) Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduko 1. artikuluan jasotakoaz besteko fenomeno naturalek sortuak, eta, zehazki, maila freatikoa igotzeak, mendi magalak mugitzeak, lurrak irristatzeak edo finkatzeak, harriak erortzeak eta antzekoek sortuak, salbu eta horiek argi eta garbi euri urak eragin baditu, aldi berean inguruan ezohiko uholdea ekarri duenak eta uholdearekin batera gertatu badira.
h) Istilu gertakariek sortuak 9/1983 Lege Organikoan, uztailaren 15ekoan, Bilera Eskubidea arautzen duenean, jasotako bileretan edo manifestazioetan, baita legezko grebetan gertatutakoak ere, salbu eta gertakari horiek ezohiko gertakaritzat jo badaitezke Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduko 1. artikuluan jasotakoari jarraituz.
i) Asegurudunaren fede txarrez gertatutakoak.
j) Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduaren 8. artikuluan ezarritako gabealdian gertatutako ezbeharretatik sortuak.

k) Lehen primaren ordainketa baino lehen gertatutakoak, baldin eta Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren estaldura etenda badago edo asegurua iraungi egin bada primak ez ordaintzeagatik, Aseguru Kontratuaren Legean xedatutakoari jarraituz.
1) Zeharkakoak edo zuzeneko edo zeharkako kalteetatik eratorritako galerak, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan zedarritutako etekin galtzeak ez direnak. Zehazki, ez dira estaldura honen barruan egongo energia elektrikoaren, gas erregaien, fuel olioaren, gasolioaren edo bestelako jariakinen kanpo hornidura etetearen edo aldatzearen ondoriozko kalteak edo galerak, ezta aurreko paragrafoan aipatutakoaz besteko zeharkako beste edozein kalte edo galera, aldaketa horiek ezohiko arriskuen estalduran sartutako kausengatik gertatuta ere.
m) Haien tamainagatik eta larritasunagatik Espainiako Gobernuak katastrofe edo kalamitate nazionaltzat jotako ezbeharrak.

3. Frankizia.
Zuzeneko kalteetan (ibilgailuak eta etxebizitzak eta haien erkidegoak kanpo), asegurudunaren frankizia izango da ezbeharrak egindako kalte ordaingarrien zenbatekoaren % 7.
Etekinen galeraren estalduran, asegurudunaren konturako frankizia izango da ezbehar arruntetarako etekinen galeraren polizan aurreikusitakoa.

4. Estalduraren hedapena.
Ezohiko arriskuen estaldurak barruan hartuko ditu arrisku arrunten ondoreetarako polizan ezarritako ondasun eta zenbateko aseguratu berberak. Dena den, motordun ibilgailuen berezko kalteak estaltzen dituzten polizetan, Kontsortzioak interes aseguragarri osoa estaltzen du, polizak partez bakarrik estalita ere.

II. JARDUKETA PROZEDURA, ASEGURUEN KONPENTSAZIO KONTSERTZIOAK ORDAINDU BEHARREKO EZBEHARRA GERTATUZ GERO

Ezbeharra gertatuz gero, asegurudunak, hartzaileak, onuradunak edo dagozkien legezko ordezkariek, zuzenean edo entitate aseguratzailearen edo aseguru bitartekariaren bidez, ezbeharra gertatu dela jakinarazi beharko dute, ezagutu eta zazpi egunera, Kontsortzioaren dagokion lurralde ordezkaritzan, ezbeharra gertatu zen lekukoan. Jakinarazpena horretarako Kontsortzioaren webgunean eskuragarri jarritako ereduaren bitartez egingo da (http://www.consorseguros.es/), edo entitate aseguratzailearen bulegoetan; bertan, kalteen nolakotasunaren arabera eskatutako dokumentazioa atxiki beharko da.
Halaber, gorde egin beharko dira ezbeharraren hondarrak eta arrastoak, adituen jardunerako, eta guztiz ezinezkoa bada, kalteen proba dokumentuak aurkeztu beharko dira: argazkiak, notario aktak, bideoak edo ziurtagiri ofizialak. Orobat, ezbeharra jasan duten ondasunen fakturak gorde egin beharko dira, suntsitzea berandutu ezin bazitekeen.
Kalteak ahal beste txikitzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.
Ezohiko gertakarietatik eratorritako galeren balioespena Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak egingo ditu, eta harentzat ez dira lotesleak izango arrisku arruntak estaltzen dituen entitate aseguratzaileak egindako balioespenak.

Egin beharreko prozeduraren inguruan sor daitekeen edozein zalantza argitzeko, Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak asegurudunarentzako honako arreta telefono hau dauka: 902 222 665.

****

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

BALDINTZA PARTIKULARRAK (BEREZKO ONDASUNAK)

ASEGURU-HARTZAILEA

Hartzailea: PASAIAKO UDALA IFZ
Egoitza: DONIBANE KALEA 19, ARIZABALO JAUREGIA
20110 PASAIA-Gipuzkoa-

Arriskua: Bakarra

- ASEGURUDUNAK: Polizaren hartzailea (Udalaren aurrekontua **Udalaren aurrekontua** 2025rako: **27.299.277** euro) eta haren 2 erakunde autonomoak (Pasaia Musikal eta udal euskaltegia –tutoretzapeko etxebizitzak barne–). Erakunde horien jarduera honako hau da:

- **Udal euskaltegia**: helduen euskalduntzea eta alfabetatzea; hizkuntz normalizazioko lanak. 2025rako aurrekontua: **648.030** euro
- **Pasaia Musikal**: Musika eskola; ikasketa arautu gabeak, 4 urtetatik, adin mugarik gabe. 2025rako aurrekontua: **989.401** euro

- AURREKONTU KONTSOLIDATUA, GUZTIRA: 28.248.797 euro

ESTALDURA KONTRATATUAK (Estaldura bakoitzerako espezifikoki adostutako baldintzen arabera, zeinak poliza honen orrietan zehaztu diren):

KALTE MATERIALAK, EZOHIKO ARRISKUEN ESTALDURA (AKK)

ARRISKU ASEGURATUAREN EZAUGARRI OROKORRAK

ARRISKUAREN DESKRIBAPENA: UDALA

ARRISKU ASEGURATUAREN KOKAPENAK:
DONIBANE KALEA 19
20110 PASAI DONIBANE Gipuzkoa
Jarduera: UDALA

KALTE MATERIALEN ESTALDURA

A) ONDASUN ETA ZENBATEKO ASEGURATUAK

- EDUKITZAILEA:..... **51.417.685,4** euro.
- EDUKIA Makineria eta altzariak..... **2.557.646,25** euro.
  Objektu apaingarriak eta artistikoak, ……..**80.062,44** euro
  (* margolanak eta eskulturak barne)

KALTE ORDAINAREN KONTRATUKO MUGA 30.000.000 euro

B) BERME ESTALIAK

- Sutea, tximista eta leherketa
- Estalduren hedapena
- Beirak eta kristalak apurtzea
- Lapurreta

c) BERME GEHIGARRIAK

BERMEAK	ZENBATEKO ASEGURATUA / MUGA
Alokairuen galera	1.218.000 euro
Kalte estetikoak	6.000 euro
Aparailu elektrikoetako kalteak, elektrizitateagatik	12.000 euro

D) FRANKIZIA APLIKAGARRIAK

- 150 euro ezbeharreko (gehienez).

E) BALDINTZA OROKORRETAN EZARRITAKO MUGEN ALDAKETA
Aldatu egin dira baldintza orokorretan jarraian zehaztutako kontzeptuetarako eta/edo ondasunetarako ezarritako mugak (berariaz adierazi da baldintza orokor horietako zein artikulurekin datozen bat), eta poliza honetarako honako zifra hauek ezarri dira:

Kontzeptua eta/edo ondasuna (euroak)	Muga
Dokumentuak eta artxiboak berrezartzeko kostua (12. artikulu, g) apartatua)	90.000,00
Moldeak eta ereduak berrezartzeko kostua (12 artikulua, h) apartatua)	90.000,00
Lapurreta bermea:	

Edukitzaileko kalteak, lapurretagatik (10. artikulua, e) apartatua)
18.000,00

EZOHIKO ARRISKUEN ESTALDURA, Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren bidezkoa, 300/2004 Errege Dekretuan, otsailaren 20koan, argitaratutako erregelamenduari eta indarreko gainerako lege xedapenei jarraituz.

ALOKAIRUAK GALTZEA

Konpainiak kalte ordaina emango du, kontzeptu honengatik aseguratutako zenbatekoaren mugara arte, poliza honek aseguratutako establezimendua dagoen pisuaren edo lokalaren alokairuak galtzeagatik, konpainiak polizaren bidez estalitako kalte baten ondorioz bada.

Kalte ordaina ezbeharraren egunean jaso beharreko egiazko errentaren araberakoa izango da; izan ere, egun horretan alokatuta ez zeuden lokalek ez dute halakorik ekarriko, eta kalkulua egingo da establezimendu aseguratua dagoen pisua edo lokala konpainiak babestutako ezbehar baten ondoriozko konponketak direla medio bizigarria ez den unean. Inola ere ezingo du gainditu alokairu urte bat.

KALTEAK APARAILU ELEKTRIKOETAN, ELEKTRIZITATEAGATIK

Konpainiak kalte ordaina emango du, lehen arriskuan eta kontzeptu horretarako ezarritako mugara arte, aparailu elektrikoek eta haien osagarriek korronte anormalengatik, zirkuitu laburrengatik eta bestelako perturbazio elektrikoengatik jasandako zuzeneko kalte eta galera materialengatik, baldin eta kalte horiek elektrizitateagatik edo tximista bat erori izanagatik gertatu badira.

Kanpo daude elektromedikuntzako ekipamenduek jasandako kalteak eta ondasun aseguratuen erabilera edo higatze normalagatik, mailakako balio galeragatik, berezko akatsagatik edo kontserbazio okerragatik gertatutakoak, baita haren funtzionamenduaren berezko kausagatikoak ere.

FRANKIZIA

Berme honengatik kalte ordainak jaso ditzakeen edozein istriputan, aplikagarria izango da baldintza partikularretan ezarritako frankizia.

EDUKITZAILEAREN KALTE ESTETIKOEN BERMEA

Baldin eta berariaz jasota utzi bada berme hori polizaren baldintza partikularretan, eta baldintza orokorretan ezarritakoa zabaltzeko, edukitzaileari eragiten dion ezbehar bat gertatuz gero, konpainiak polizaren kalte materialen estalduraren bidez estalia eta ordaindua, eta hark ondasun

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

aseguratuen jarraitutasun eta koherentzia estetikoari eragiten badio ezinezkoa delako kaltea konpontzea ezbeharra gertatu aurretik zuten osaera estetikoa mantentzeko materialekin, konpainiak kalte ordaina emango du ezbehar bakoitzerako berme horrekin aseguratutako zenbatekoaren mugara arte, ezbeharraren aurretik ondasun kaltetuek zuten koherentzia estetikoa lortzeko materialen konponketa eta berrezartze gastuengatik.

Berme hori ez da aplikagarria izango historikotzat edo artistikotzat katalogatutako eraikinetan edo egun ez dauden materialekin eraikitakoetan, eta berme honetatik kanpo daude igerilekuak, hesiak, hormak, zerbitzu galeriak, osasun aparailuak eta haien osagarriak, berokuntzako eta hozketako aparailuak eta instalazioak, pinturak, eta eraikinen akabera landuak eta/edo artistikoak.

Frankizia: Ez dago.

****

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

ESTALDURAN SARTUTAKO UDAL ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

ART.	KONTZEPTUA/ARTIKULUA	KOKALEKUA	EDUKITZAILEA	EDUKIA	BARRUTIA
1	INMUEBLE DESTINADO A CASA DE CULTURA EN CALLE HAMARRETXETA, 13	HAMARRETXETA, 13	534.245,40	117.054,34	ANTXO
2	PORCHE EN GURE ZUMARDIA DE PASAI ANTXO	GURE ZUMARDIA	150.000,00		ANTXO
3	INMUEBLE EN CALLE GELASIO ARAMBURU, 8 Y 9	GELARIO ARAMBURU, 8-9	191.309,40		ANTXO
4	INMUEBLE DE ZAHARREN BILTOKIA EN PLAZA AXULAR,2,4,6	AXULAR PLAZA, 2-4-6	650.161,60	1.595,47	ANTXO
5	LOCALES DE MOLINAO, EN CALLE ESKALANTEGI,53-55	ESKALANTEGI, 53-55	119.625,00	11.498,47	ANTXO
6	IGLESIA EN GURE ZUMARDIA	GURE ZUMARDIA	1.660.000,00		ANTXO
7	INMUEBLE DESTINADO A CASA CURAL EN GURE ZUMARDIA	GURE ZUMARDIA	332.712,00		ANTXO
8	INMUEBLE DESTINADO A EUSKALTEGI EN CALLE ZUMALAKARREGI,9	ZUMALAKARREGI, 9	239.965,00	15.990,88	ANTXO
9	GAZTETXE EN C/AXULAR, 7 –HAMARRETXETA,25 2 LOCALES	HAMARRETXETA, 25 (Axular 7 en realidad)	66.847,82		ANTXO
11	OFICINA DE SERVICIOS SOCIALES EN CALLE HAMARRETXETA, 22-24	HAMARRETXETA, 22-24	85.229,72	13.222,26	ANTXO
12	LOCAL BAJO EN NAFARROA ETORBIDEA, 5	NAFARROA ETORBIDEA, 5	104.010,00		ANTXO

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

13	LOCAL HABILITADO COMO MERCADO EN GURE ZUMARDIA, 22	GURE ZUMARDIA, 22	97.041,00	13.222,00	ANTXO
14	FRONTON CUBIERTO IBAI ONDO PARKEA	PARKE IBAIONDO (ROTONDA ENTRADA A PASAI ANTXO DESDE LA GI-20)	607.126,78	85.000,00	ANTXO
15	CONTAINER BAR FRONTON IBAI ONDO	PARKE IBAIONDO (ROTONDA ENTRADA A PASAI ANTXO DESDE LA GI-20)	28.919,00		ANTXO
16	2 LOCALES EN LUZURIAGA (ESKALANTEGI 45 Y ESKALANTEGI 53)	ESKALANTEGI 45 Y 53	307.167,17	20.000,00	ANTXO
17	CASA CONSISTORIAL,SITA EN DONIBANE KALEA,118	DONIBANE, 118	452.858,00	13.200,00	DONIBANE
18	PLANTA BAJA, (ALMACEN) 1º Y 2º PISO EN DONIBANE KALEA, 114	DONIBANE, 114	123.842,80	17.633,00	DONIBANE
19	PLATAFORMA EN PLAZA SANTIAGO	SANTIAGO PLAZA	21.500,00		DONIBANE
20	INMUEBLE, SITO EN DONIBANE KALEA,103	DONIBANE, 103	131.279,94		DONIBANE
21	DIVERSOS LOCALES SITOS EN DONIBANE KALEA,142	DONIBANE, 142	159.750,00		DONIBANE
22	INMUEBLE DESTINADO A W.C. PUBLICOS Y LOCAL DE LIBRE DISPOSICION,SITO EN DONIBANE KALEA,140	DONIBANE, 140	59.640,00		DONIBANE
23	HUMILLADERO BATALLA ORREAGA (PIEDAD)	DONIBANE, 76	90.000,00		DONIBANE

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

24	LOCAL SITO EN DONIBANE KALEA 70 (ANTIGUA PELUQUERIA JUBILADOS)	DONIBANE, 70	24.495,00		DONIBANE
25	MARQUESINA DESTINADA A LA ESPERA DE PERSONAS EN EL EMBARCADERO DE NICOLASA (S.JUAN-ANTXO)	DONIBANE, 61	6.390,00		DONIBANE
26	LOCALES EN DONIBANE KALEA, 58 (2)	DONIBANE, 58	113.676,60	10.956,22	DONIBANE
27	LOCALES EN DONIBANE KALEA, 25	DONIBANE, 25	127.050,00		DONIBANE
28	INMUEBLE DESTINADO A FRONTON, SITO EN CALLE JUAN XXIII, 2	JUAN XXIII, 2	223.815,20		DONIBANE
29	INMUEBLE DESTINADO ANTIGUAMENTE A VIVIENDAS DE MAESTROS, SITO EN CALLE J.J. OTAEGI,3	J.J. OTAEGI, 3	251.092,60		DONIBANE
30	INMUEBLE DESTINADO ANTIGUAMENTE A VIVIENDAS DE MAESTROS, SITO EN CALLE J.J. OTAEGI,2	J.J. OTAEGI, 2	246.287,00		DONIBANE
31	INMUEBLE DESTINADO A ESCUELAS SITO EN CALLE J.J. Otaegi 1	J.J. OTAEGI 1	1.180.203,40		DONIBANE
32	INMUEBLE DESTINADO ANTIGUAMENTE A PARVULARIO EN CALLE SAN ROQUE, 9	SAN ROQUE, 9	211.935,00		DONIBANE
33	CASETA DE CEMENTERIO MUNICIPAL DE DONIBANE	LARRABIDE BIDEA	17.572,50		DONIBANE
34	AYUNTAMIENTO.PALACIO ARIZABALO EN DONIBANE KALEA, 19	DONIBANE KALEA, 19	1.940.288,08	308.000,00	DONIBANE
35	POLIDEPORTIVO DE DONIBANE EN CARRETERA LARRABIDE	LARRABIDE BIDEA	2.101.000,00	85.944,73	DONIBANE
36	CASERIO ARROKAUNDIETA -ALBERGUE-	ARROKAUNDIETA	329.939,40	76.028,03	DONIBANE

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

37	DEPOSITOS DE AGUA EN ARROKAUNDIETA, RENTERIA Y DONIBANE	TRES DISTRITOS	746.018,79		DONIBANE
38	VIVIENDA ANEXA A LA ERMITA STA.ANA- ALBERGUE PEREGRINOS-	LARRABIDE BIDEA	160.810,80		DONIBANE
39	SALA COMPLEMENTARIA DE JUEGOS EN ALBERGUE DE ARROKAUNDIETA (PASAI DONIBANE)	ARROKAUNDIETA	104.471,57	6.611,00	DONIBANE
40	CANTINA EN PASEO DE PUNTAS EN PASAI DONIBANE	PASEO PUNTAS	95.580,00	47.300,00	DONIBANE
41	HOGAR DEL JUBILADO EN CALLE JUAN XXIII, 34, EN PASAI DONIBANE	JUAN XXIII 34	1.208.731,25	357.500,00	DONIBANE
42	ASCENSOR EN CALLE SAN JUAN, 30, EN PASAI DONIBANE	DONIBANE,30	352.657,00		DONIBANE
43	PILONAS DE CONTROL AUTOMATICO EN TORREATZE EN PASAI SAN PEDRO Y DONIBANE EN PASAI DONIBANE	TORREATZE Y DONIBANE	90.000,00		DONIBANE
44	MARQUESINA DESTINADA A LA ESPERA DE PERSONAS EN EL EMBARCADERO DE TXULOTXO (S.JUAN-S.PEDRO)	DONIBANE, 73	9.213,28		DONIBANE
45	LOCAL DE BOMBEO DE KALABURTZA	ARROKAUNDIETA	36.540,25	6.000,00	DONIBANE
46	EDIFICIO SOCIO-CULTURA DE DONIBANE -KORDELEIA-	DONIBANE KALEA, 1	1.837.655,00	500.000,00	DONIBANE
47	DEPOSITO AGUA DONIBANE	PASEO DONIBANE	118.000,51	71.959,18	DONIBANE
48	ANTENAS DE GUARDIA MUNICIPAL Y SERVICIOS EN DEPOSITOS DE RENTERIA Y DONIBANE	ARROKAUNDIETA Y RENTERIA	60.000,00		DONIBANE-RENTERIA
49	LOCAL EN ARTXIPI, 111 - ZILARGIÑENE--ALMACEN- SN.SN.	ARTXIPI, 111	77.000,00	6.000,00	DONOSTIA

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

50	INMUEBLES DESTINADOS A TENENCIA DE ALCALDIA,JUZGADO ,BIBLIOTECA Y OTROS USOS,SITO EN HERRIKO PLAZA,3 Y 4	HERRIKO PLAZA ,3-4	580.006,40	45.650.00	SAN PEDRO
51	INMUEBLE DESTINADO A CAPILLA CEMENTERIO Y SALA DE AUTOPSIA EN SAN PEDRO	HERRIKO PLAZA	90.000,00		SAN PEDRO
52	INMUEBLE DESTINADO A ESCUELAS EN HERRIKO PLAZA,1	HERRIKO PLAZA, 1	1.639.200,00		SAN PEDRO
53	INMUEBLE DESTINADO A GIMNASIO MUNICIPAL EN CALLE ESNABIDE,2	ESNABIDE, 2	391.479,16	45.650.00	SAN PEDRO
54	INMUEBLE DESTINADO A ESCUELAS DEL POBLADO Y ALMACEN SERVICIOS EN CALLE MARINOS,4	MARINOS, 4	934.366,20	0,00	SAN PEDRO
55	LOCAL EN PASEO DEL FARO, 1	Pº FARO, 1	58.882,10		SAN PEDRO
56	LOCALES EN CALLE GRAN SOL, 11 (2)	GRAN SOL, 11	77.042,00	9.335.00	SAN PEDRO
57	INSTALACIONES PARA EL REMO EN KALPARRA EN PASAI SAN PEDRO	TORREATZE KALEA	2.097.009,80	36.096,78	SAN PEDRO
58	HOGAR DE JUBILADOS EN CALLE ESNABIDE,2-4	ESNABIDE, 2-4	170.164,80	33.055,67	SAN PEDRO
59	UDAL ARETOA EN PLAZA MORALES OLIVER,2	PL.MORALES OLIVER, 2	386.625,45	43.316,14	SAN PEDRO
60	ESCALERAS MECANICAS (4 TRAMOS) EN PABLO ENEA, EN PASAI SAN PEDRO	PABLO ENEA	581.300,00		SAN PEDRO
61	W.C. PUBLICO EN TORREATZE, EN PASAI SAN PEDRO	TORREATZE	110.000,00		SAN PEDRO

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

62	PERGOLA EN FRONTOIKO ZUMARDIA, EN PASAI SAN PEDRO	FRONTOIKO ZUMARDIA	70.000,00		SAN PEDRO
63	VIVIENDAS TUTELADAS EN CALLE SAN PEDRO, 7-9	SAN PEDRO, 7-9	1.020.900,00	57.000,00	SAN PEDRO
64	LOCAL DE ZAHARREN EGOITZA	ARRAUNLARI, 54	404.940,94		SAN PEDRO
65	INMUEBLE, EN PASEO DEL FARO 11	PASEO FARO, 11	83.475,30		SAN PEDRO
66	FRONTON SAN PEDRO	FRONTOIKO ZUMARDIA	100.000,00		SAN PEDRO
67	217 PLAZAS DE GARAJE EN BOU NABARRA PLAZA	BOU NABARRA PLAZA	1.505.261,20	10.000,00	SAN PEDRO
68	INMUEBLE DESTINADO A VIVIENDAS MUNICIPALES (3), Y LOCALES BAJOS EN ULIA, 13 BIS	AVDA. ULIA, 13 BIS	579.917,02	29.750,10	TRINTXERPE
69	2 LOCALES EN CALLE RENTERIA, 3	RENTERIA, 3	121.070,20		TRINTXERPE
70	INMUEBLE DESTINADO A ESCUELA NTRA.SRA. DEL CARMEN, EN PLAZA DEL CARMEN,4, PISTAS Y PORCHE	PL.DEL CARMEN, 4	2.902.950,91		TRINTXERPE
71	INMUEBLE DESTINADO A GRUPO ESCOLAR,EN PLAZA DEL CARMEN 5	PL DEL CARMEN ,5	2.623.803,80		TRINTXERPE
72	VIVIENDA CONSERJE GRUPO ESCOLAR NTRA.SRA DEL CARMEN,EN PLAZA DEL CARMEN,5	PL DEL CARMEN, 5	129.388,00		TRINTXERPE
73	INMUEBLE ADMINISTRACION GRUPO ESCOLAR PLAZA NTRA.SRA.DEL CARMEN	PL.DEL CARMEN, 5	280.956,80		TRINTXERPE
74	GIMNASIO GRUPO ESCOLAR NTRA.SRA. VIRGEN DEL CARMEN	PL DEL CARMEN, 5	388.164,00		TRINTXERPE

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

75	INMUEBLE DESTINADO A PALACIO ANDONAEGI (FUNDACION PASAIA MUSICAL,BIBLIOTECA Y VESTUARIOS)	DONOSTI KALEA 1	1.545.130,00	101.071,00	TRINTXERPE
76	INMUEBLE DESTINADO A FRONTON ANDONAEGI Y VESTUARIOS	DONOSTI KALEA	777.695,82	3.305,56	TRINTXERPE
77	LOCAL BAJO EN BORDA ENEA,4	BORDA ENEA, 4	70.015,00		TRINTXERPE
78	PISO-VIVIENDA EN BORDA ENEA, 4,2	BORDA ENEA, 4, 2º	74.860,20	7.219,35	TRINTXERPE
79	LOCAL SITUADO EN C/ EUSKADI ETORBIDEA, 27 (BIENESTAR SOCIAL)	EUSKADI ETORBIDEA, 27	276.937,80	28.877,43	TRINTXERPE
80	INMUEBLE DESTINADO A EUSKALTEGI, CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES EN EUSKADI ETORB,61	EUSKADI ETORBIDEA, 61	1.041.456,00	51.986,61	TRINTXERPE
81	TENENCIA DE ALCALDIA DE TRINTXERPE	EUSKADI ETORBIDEA	2.258.400,00	165.278,33	TRINTXERPE
82	CONTENIDO HOGAR JUBILADOS TRINTXERPE EN CALLE MARINOS,1	MARINOS, 1	20.000,00	108.290,36	TRINTXERPE
83	INMUEBLE-PORTERIA DEL FRONTON-VESTUARIOS DE TRINTXERPE	EUSKADI ETORBIDEA 25T	122.990,87		TRINTXERPE
84	LOCAL BAJO EN CALLE PESCADERIA, 52	PESCADERIA, 52	27.210,00	1.983,34	TRINTXERPE
85	ASCENSOR SITO EN C/ SUBIDA MARINOS, 1	MARINOS, 1	231.389,40		TRINTXERPE
86	TRES FRONTONES EN PLANTAS 3ª Y 4ª DE LOS GARAJES DE LA C/ ARANEDER, 4	ARANEDER, 4	232.127,78		TRINTXERPE
87	EDIFICIO DE 4 PLANTAS EN AVDA. ULIA, 3 - CARITAS-	AVDA. ULIA, 3	827.353,08		TRINTXERPE

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

88	LOCAL DESTINADO A LILITEGI EN LA CALLE PESCADERIA 21,BAJO	PESCADERIA, 21	152.493,00		TRINTXERPE
89	ASCENSORES (2) EN LA CALLE EUSKADI ETORBIDE, 23, DE TRINTXERPE	EUSKADI ETORBIDEA, 23	533.865,00		TRINTXERPE
90	TALLER DE COCINA DEL CENTRO DE INICIACIÒN PROFESIONAL (CIP) EN LA CALLE BIDASOA, 1-3, BAJO	BIDASOA, 1-3	125.032,62	68.200,00	TRINTXERPE
91	ASCENSOR EN CALLE RENTERIA, 3, EN TRINTXERPE	RENTERIA, 3	385.740,00		TRINTXERPE
92	2 ASCENSORES EN ZONA DE ANDONAEGI, EN TRINTXERPE	DONOSTI KALEA	533.865,00		TRINTXERPE
93	LOCAL ROTONDA DE AZKUENE EN EDIFICIO DE GARAJES	AVDA. ULIA, 3	70.000,51	11.000,00	TRINTXERPE
94	VESTUARIOS EN ZONA DEPORTIVA DE AZKUENE SOBRE EDIFICIOS DE GARAJES	AVDA. ULIA, 3	136.514,96	16.500,00	TRINTXERPE
95	LOCAL BAJO EN ESCALERAS -ASCENSOR DE ANDONAEGI-	DONOSTI KALEA	19.000,00		TRINTXERPE
96	EDIFICIO LUZURIAGA	ESKALANTEGI KALEA 78	4.621.941,25		DONOSTIA
97	EDIFICIO ZIRIZA	EUSKADI ETORBIDEA Z/G	1.082.970		TRINTXERPE
98	ASCENSOR EN CALLE BORDALABORDA ENTRE PORTALES 5 Y 7	BORDALABORDA ENTRE PORTALES 5 Y 7	594.247,54		DONIBANE
99	ASCENSOR EN PLAZA MEIPI ENTRE PORTALES 3 Y 5 DE LA CALLE LEZO BIDEA	PLAZA MEIPI ENTRE PORTALES 3 Y 5 DE LA CALLE LEZO BIDEA	445.891,61		DONIBANE

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

			51.417.685,4	**2.557.646,25**	

AURKIBIDEA

ONDARE ERANTZUKIZUNA

- Baldintza orokorrak.....2-7
- Baldintza partikularrak.....8-20

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
Tel. 943 345364
kudeaketa@pasaia.net

BEREZKO ONDASUNAK

- Baldintza orokorrak..... 20-52
- Baldintza partikularrak..... 53-56
- Ondasunen zerrenda.....57-66